<b>Zerbitzuen BEG: Merkataritza, garraioa eta ostalaritza</b>	Balio ekonomikoa (€)	
<b>Zerbitzuen BEG: Administrazio publikoa, osasuna, hezkuntza eta gizarte-gaiak</b>	Balio ekonomikoa (€)	
<b>Zerbitzuen BEG: gainerako zerbitzuak</b>	Balio ekonomikoa (€)	geoEuskadi URA (2018)
<b>Azpiegitura kritikoak</b>	Azpiegiturak identifikatzea	

<sup>9</sup> BOE 102, 29/04/2011, <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-7630>

## *Ondorioak kalkulatzea*

Informazio-geruzak gurutzatu ziren, zehazki, uholde-geruzak, esposizio sozioekonomikoen adierazleenak eta lurzorua erabilerak (bizitegi-erabilera eta industria-erabilera) kasu batzuetarako.

**Ondorioak biztanleengan.** Udalerrian uholdeen eragina jasan zezaketen pertsonen kopurua eta udalarekiko ehunekoa kalkulatu ziren.

**Ondorioak enpleguan.** Langile-kopurua zenbatetsi zen, jarduera-sektorearen arabera, udalerraren arabera, eta, orobat, batez besteko langile-ehunekoa, jarduera-sektorearen arabera, udalerraren arabera. Aztertutako jarduera-taldeak eta/edo -sektoreak honako hauek izan ziren:

- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.
- Manufaktura-industria industriaren eta energiaren sektorean.
- Industriaren eta energiaren sektorean garatutako gainerako jarduerak.
- Eraikuntza.
- Zerbitzu-sektoreko merkataritza, ostalaritza eta garraioa.
- Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak (zerbitzu-sektorean).
- Zerbitzu-sektoreko gainerako jarduerak.

**Ondorioak industria- eta bizitegi-lurzoruan.** Eragindako industria- eta bizitegi-azalera udalerraren arabera kalkulatu zen, baita haren ehunekoa ere.

**Ondorioak kapitalaren stockean eta BEGan.** Kalteen funtzio bat aplikatu zen galera ekonomikoak kalkulatzeko (kurba horrek balio-galeraren ehunekoa ematen du, urak hartzen duen ur-geruzaren lodieraren arabera). Uraren Euskal Agentziako (URA 2016) 2015-2016 Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean zehaztutako kalteen kurba erabili zen. Kapitalaren stockean eta BEGean izango zituen ondorioak kalkulatzeko, honako aldagai hauek zehaztu ziren, lurralde historikoaren eta agertokiaren arabera, IHCantabriak proposatutako metodologiari jarraituz:

- Galdutako bizitegi-kapitalaren stocka eta galeraren lurralde-ehunekoa.
- Galdutako industria-kapitalaren stocka (€) eta lurralde-mailako ehunekoa.
- Galdutako industriako BEGd (€) eta ehunekoa.
- Merkataritza-, ostalaritza- eta garraio-zerbitzuen galdutako BEGd, eta ehunekoa.
- Administrazio publikoko, hezkuntzako, osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako zerbitzuen galdutako BEGd (€), eta ehunekoa.
- Gainerako zerbitzuen galdutako BEGd (€), eta ehunekoa.

**Ondorioak azpisistema kritikoetan.** Hona hemen zenbatetsitako aldagaiak:

- Poligonoa: Aireportuak eta heliportuak. Uholde-egoerek eragindako azpiegiturak identifikatu ziren eta uholde-geruzaren lodiera irudikatu zen.
- Puntua: SEVESO industriak, hondakinak (atmosfera eta/edo uretara isurketak egiten dituzten enpresak; hondakin arriskutsuen, ez-arriskutsuen, hirikoen eta geldoen biltegia), ospitaleak, azpiestazio elektrikoak eta HUA. Eragindako azpiegitura puntualen kopurua kalkulatu zen, eta horien kokalekuak eta izenak identifikatu ziren.
- Lerroa: Zirkulazio-bide nagusiak (autobideak eta autobiak) eta trenbideak (metroa, tranbia, funikularra). Agertoki bakoitzean urak hartutako tarteen kopurua eta horien luzera zenbatu ziren. Bestalde, agertoki bakoitzean uholdeak eragin ditzakeen 200 metrotik gorako tartekak identifikatu ziren.

## *Mugak*

Uholdeak eragindako afekzioaren emaitzak oso baldintzatuta daude hasierako informazioarekin. Adierazle sozioekonomikoak lantzeko orduan onartutako hurbilketek eta bereganatzeek emaitzak eta horien interpretazioa baldintzatzen dituzte; gainera, ez dago emaitzak kalibratzeko eta baliozkotzeko datu askorik. Hori oso nabarmena da, bai aldagai sozioekonomikoetarako, bai beste alderdi fisiko batzuetarako, hala nola uholde-orbanetarako.

Biztanleriari dagokionez, lortutako datuak 3 pertsona baino gehiagoko atariak dira, eta azterlanetik kanpo geratzen dira 3 biztanle baino gutxiago dituzten atari guztiak (euskal kostaldeko emaitza orokorren ikuspegitik, eragin hori ia nulua da, nahiz eta biztanle gutxiko udalerrri batzuetan nolabaiteko eragina izan lezakeen, nahiz eta oso neurrizkoa izan). Era berean, ezin izan da udatiar biztanleriaren eragina neurtu, ez baitute informazio hori. Etorkizuneko biztanleria-egoeren kasuan, 2061 eta 2100erako proiektzioak berdinak direla onartzen da.

Erabilitako adierazle sozioekonomikoen mugak dituzte BEGari, kaltearen funtzioari eta edukierei dagokienez, besteak beste. Hona hemen zenbait gogoeta:

- BEG: balioak zeharka lortzen dira BPGaren bidez.
- Ez da ezagutzen zerbitzuen sektoreko enpresek hartutako azalera, eta, beraz, zenbatespenak eragindako kokapen puntualera murrizten dira.
- Edukiera datuak (jende kopurua) ez daude eskuragarri; beraz, ezin da egin azpiegitura kritikoetan eragina jasan duten pertsonen zenbatespena.
- Kaltearen funtzioa: ez da ad hoc kalkulerik egin, baizik eta URAk (2016) ibai-uholdeetarako proposatutako funtzioa onartu zen. Beraz, aukera tekniko ugari daude kostaldeko uholdeek eragindako kalteetarako beste funtzio espezifikoago batzuk aztertzeko.

Azpiegitura kritikoei dagokienez, kontuan hartu behar da erabili den informazioan ez dagoela azpiegitura horren kotarik, eta, beraz, lurpeko elementuak edo elementu goratuak (zubibideak, adibidez) potentzialki urak hartuta ager daitezke, baina pilen zimenduek baino gehiago eragin dezakete nahitaez, adibidez, zubibideen kasuan.

## Sistema naturalaren gaineko arriskua

Sistema sozioekonomikoaren arrisku-analisian bezala, sistema naturalaren gaineko arriskuak Asturiasko pilotuan ezarritako jarraibideei jarraitzen die. Jarraibide horiek *Climate Change 2014: Impacts, adaptation, and vulnerability* (IPPC 2014a).

Aipagarria da azterlan honetan ez dela balioetsi espezieek klima-aldaketaren aurrean duten erantzuna. Espezie bakoitzak modu espezifikoan erantzungo du aldaketara egokitzeko duen gaitasunaren arabera (espezie batzuk desagertu egingo dira ziurrenik, eta beste batzuk, berriz, hedatu). Proiektuaren ardatza da eragindako espezie eta habitatei buruzko zenbatespen bat lortzea, hori arintzeko lehen urrats gisa, ahal bada, neurri zuzentzaileak aplikatuta. Asaldura horien aurrean arlo naturalean dauden egokitzeko estrategiak proiektuaren irismenetik kanpo geratzen dira.

Metodologikoki, uholde-orbanen intersekzio geometrikoa aztertu zen esposizioaren ezaugarri diren adierazleen kartografiarekin. Zehazki, erabilitako adierazleak EUNIS habitatak, Batasunaren Intereseko Habitaten (BIHak) sailkapena eta onartutako kudeaketa-planekin mehatxatutako fauna eta flora izan ziren. Adierazle horiei buruzko informazioa geoEuskaditik dator (sarbidea 2020/11/24).

Ingurumen-kalteberatasunaren ezaugarria inplementatutako ingurumen-figurak izan ziren, natura-interes handiko habitatak eta espezieak dituzten eremuak, eremu pristinoak edo hauskorak. Zehazki, kalteberatasun-adierazleak guneak babesteko figuretan (Natura 2000 Sareko eremuak, autonomia-erkidegoetako eremu babestuak, RAMSAR eta Biosferaren Erreserba) eta Uraren Esparru Zuzentarauaren arabera zehaztutako ur-masetan oinarritzen dira (2000/60/EE Zuzentaraia).

Biotopo Babestua, Parke Naturala eta Zuhaitz Berezia eremu autonomikoko naturagune babestuak dira. Gaur egun, araudi-motaren batek babestutako euskal naturaguneak hauek dira: lau biotopo, zazpi zuhaitz berezi, bi parke natural, hemeretzi KBE gune, hiru HBBE, bi RAMSAR gune eta Biosfera Erreserba bat. Hala ere, gune babestu horietako batzuek babes-figura bat baino gehiago dute (Gaztelugatxeko biotopoa edo Urdaibaiko Erreserba), eta, beraz, espazio babestuen guztizko kopurua nabarmen murrizten da. Kostaldeko eremuari dagokionez, oro har, gune babestuak hamalau dira.

Ur-masei buruzko informazioa geoEuskaditik dator (“EAEko lurrazaleko uren mugaketa”, 2020/07/07ko sarbidea). Gaur egun, aztertutako eremuan dauden ur-masak hauek dira: kostaldeko lau ur-masa, trantsizioko hamahiru ur-masa eta ibaietako hogeita hamazazpi ur-masa, eta azterketa-eremutik kanpo geratzen dira ur-masa artifizialak eta urtegiak.

Ingurumen-arriskua ebaluatzeko, uholdearen eragina jasan dezaketen habitatak eta espezieak zehaztu ziren. Horretarako, uholdeak eragindako habitataren guztizko eremua, aztertutako eremuan uholdeak eragindako espezieen kopurua (fauna eta flora) eta eragina jasan dezaketen babes-figura eta ur-masa bakoitza kalkulatu ziren, uholdeak eragindako inpaktuen espazio-banaketa ezaugarrituz.

## HIGADURA ARRISKUAREN AZTERKETA

### Higadura modelatzea

Kostaldeko lerroa aldatzen duten itsas prozesu garrantzitsuenak olatuak (altuera, periodoa eta norabidearen arabera definitua) eta itsas mailaren aldaketa (batez besteko mailaren igoera, marea astronomikoa eta meteorologikoa) dira. Itsasertzeko zerrendari buruzko olatuen datuak (-20 m-ra) DOW datu-basetik datoz (Camus, 2013), eta 200 m-ko espazio-bereizmena dute. Zenbait eremuk zehaztasun handiagoa behar izan zuten, eta, horregatik, itsasoko klima berriro hedatu zen, adibidez, Bilboko Abraren inguruan eta Kontxako badian, SWAM ereduarekin, 1 m-ko bereizmeneko batimetria erabiliz (Galparsoro et al., 2009). Marea meteorologikoari buruzko datuak GOS 1.1 datu-basetik lortu ziren (Cid 2014). Marea astronomikoa Bilbo eta Pasaiako konstante harmonikoekin berreraiki zen.

XXI. mendean zehar euskal kostaldean itsas mailaren igoera Slangen et al.-ek, estimatutako eskualde-proiekzioen bidez lortu zen. Bi agertoki eta haien konfiantza-tarteak aztertu ziren, eta guztira sei agertoki posible sortu ziren; alde batetik, inpaktu ertaineko agertoki bat (RCP 4.5), mende-amaierarako itsasoaren mailaren igoera +29 eta +72 cm artekoa izanik, eta, bestetik, inpaktu handiagoko agertoki bat (RCP 8.5), itsasoaren mailaren igoera +42 cm eta +1 m artekoa izanik.

Kontuan izanik orain arte egindako ikerketek iragartzen dutela Ipar Atlantikoan olatuen altueran, gailur-periodoan, olatuen norabidean eta marea meteorologikoan aldaketa minimoak izango direla (Camus et al., 2017 eta 2019), XXI. mendean konstanteak eta inolako joerarik gabekoak izango direla onartu zen.

Azterlanean erabilitako kosta-lerroaren bilakaera-ereduak epe laburreko eta luzeko prozesuak hartzen ditu kontuan. Honek kostaldean zehar sedimentuen garraioa modelatzen du olatuek eragindako maila-aldaketengatik, marea astronomikoagatik, marea meteorologikoagatik eta itsas

mailaren igoeragatik, baita estuarioen eraginagatik ere. Erabilitako ereduaren deskribapen zehatza egiteko, Santiago et al., 2021ek argitaratutako artikulua kontsulta daiteke. Modeloa Donostiako Kontxako, Ondarretako eta Zarauzko hondartzetan kalibratu eta baliozkotu zen. Zarauzko hondartza aukeratu zuten probaleku nagusi, eskura zegoen datu kopuruagatik.

Hondartzen batez besteko atzerakada kalkulatu zen, epe laburreko (olatuak) eta luzeko (itsasoaren batez besteko mailaren igoera) prozesuen arabera. Nabarmentzekoa da emaitzak hondartzen higadura-prozesuan soilik oinarritu zirela, akrezio-prozesuak kontuan hartu gabe. Bestalde, hondartza lehorraren atzerapenaren 5, 10, 25, 50, 100 eta 200 urteei lotutako itzulera-denborak ere kalkulatu ziren, urteko higaduraren balio minimoetatik lortutako seinalea egiantz handieneko metodoaren bidez GEV funtzio batera doitu ondoren. Gainera, haiekin lotuta eta hondartza bakoitzerako, higadura-ehunekoa kalkulatu zen. Horretarako, itzulera-denbora bakoitzeko atzerapen-egoerei lotutako azalera hondartzaren egungo batez besteko azalera osoarekin zatitu zen.

Hondartzen atzerakada ere kalkulatu zen, itsas mailaren igoeragatik soilik (+26, +51, +70 eta +100 cm), eta higadura-ehunekoa ere kalkulatu zen, atzerakadaren balioa hondartza bakoitzean gaur egun dagoen batez besteko azalera osoari erreferentzia eginez. Bestalde, galdutako sedimentu-bolumena ondorioztatu zen, IHCantabriak proposatutako formulari aldaera bat aplikatuz (Hinkel et al., 2013), hondartzaren luzetarako aldakortasuna kontuan hartzen duena:

$$V = h \int_a^b R(x) dx$$

non  $a$  eta  $b$  hondartzaren alboko mugak diren,  $R(x)$  batez besteko mailaren igoeraren ondoriozko atzerapena da eta  $h$  profilararen altuera aktiboa da. Azken hori ixteko sakoneraren, bermaren altueraren eta marea-karreraren batura gisa kalkulatu da.

Azkenik, kostaldeko lerroaren atzerakada eta inpaktu-maila kalkulatu ziren, epe laburreko eta luzeko prozesuak batera kontuan hartuta. Euskal itsasertzeko hondartzen kostaldearen atzeranzko muturreko erregimena balioetsi zen. Muturreko erregimena lortzeko, muturren funtzio orokor bat egokitu zen (GEV, ingelesezko siglen arabera). Proposatutako agertoki bakoitzerako 5, 10, 25, 50, 100 eta 200 urteko itzulera-denborako atzerakada lortu zen. Gaur egungo olatuek eragindako itzulera-denbora horiei lotutako higadura gehitu zitzaion hautatutako klima-egoeretan itsas mailaren igoerak eragindako higadurari.

Adierazi behar da kartografia-bistaratzeari aldatu egin dela kontuan hartutako haretza bakoitzean. Hondartza lehorraren atzerakada-balioa ematetik (metrotan), atal honetan deskribatutako agertokietan hondartza lehorraren lerroaren posizio georreferentziatua marraztera igaro gara.

## Aldaketa morfologikoak estuarioetan

Jarraian, klima-aldaketak estuarioetako elementu morfologikoetan dituen eraginak aztertzeke erabilitako oreka-ereduak deskribatzen dira. Eredu mota horiek estuarioko elementu morfodinamikoaren eta marea-prismaren arteko erlazio empirikoetan oinarritzen dira (itsasbeheratik itsasgora arte estuarioan sartzen den ur-bolumena eta itsasgoraren eta itsasbeheraren artean estuariotik ateratzen dena), eta estuarioetako elementu morfologikoaren oreka-eremuei eta -bolumenei buruzko informazio orokorra ematen dute.

Berez, estuario baten oreka-morfologia aldatzeko modu bakarra (bokaleko eremu kritikoa, kanpoaldeko behe-mailak, kanal nagusia, bigarren mailako kanalak eta lautadak edo barrualdeko behe-mailak) marearen prisma ( $\Omega$ ) aldatzea dela onartzen da. Parametro horri bi faktorek eragin diezaioke: itsasoaren batez besteko mailaren aldakuntzak ( $\Delta\eta$ ) klima-aldaketaren ondorioz eta/edo barruko behe-mailen kotaren hazkundeak ( $\alpha$ ).

Marea-prismaren aldaketa, une jakin batean, modu errazenean, hau da:

$$\Delta\Omega = (\Delta\eta - \alpha)A_f$$

non,  $\Delta\Omega$  marea-prismaren ( $m^3$ ) igoera den,  $\Delta\eta$  itsas mailaren igoera (m),  $\alpha$  barnealdeko behe-mailen kotaren igoera (m) eta  $A_f$  barnealdeko behe-solairuek okupatutako eremua ( $m^2$ ).

### Marea-prisma handitzearen eragina barrualdeko behe-mailetan

Barruko behe-mailen kota-igoera itsas mailaren igoera ( $\alpha < \Delta\eta$ ) baino txikiagoa bada, barrualdeko behe-mailek hasierako oreka-egoerarekiko bolumen-defizita izango dute, izandako  $\Delta\Omega$  agertokiaren parekoa. Honela:

$$V_f = V_{f,eq} + \Delta V_f; \quad \Delta V_f = (\Delta\eta - \alpha)A_f$$

$V_f$  barrualdeko behe-mailen sedimentu-bolumena ( $m^3$ ),  $V_{f,eq}$  barrualdeko behe-mailen oreka-bolumena ( $m^3$ ) eta  $V_{f,eq}$  barrualdeko behe-mailen bolumen-defizita diren,  $\Delta\Omega$  ( $m^3$ ) dela-eta.

Barrualdeko behe-mailen oreka dinamikoa berreskuratzen hasiko dira beren kotaren igoera-tasak itsas mailaren igoera-tasa gainditzen duenean, eta oreka dinamikoa berrezartzeko behar den denbora honako funtzio esponentzial honen arabera izango da (Agudo, 2013):

$$V_f = V_{f,eq}(1 - e^{-\alpha_r t}); \quad \alpha_r = \alpha - \Delta\eta > 0$$

### Bokaleko sekzioan marea-prisma handitzearen eragina

Bokaleko sekzio kritikoa eremuaren aldakuntzaren eta itsas mailaren igoeraren arteko erlazioa honako hau da:

$$\frac{\Delta A_{eq}}{A_{eq,act}} = \frac{(\Delta\eta - \alpha)A_f}{\Omega_{act}}$$

non,  $\Delta A_{eq}$  bokaleko ahoaren oreka-eremuaren aldaketa den ( $m^2$ ).

#### Marearen prisma handitzeak kanpoaldeko behe-mailaren bolumenean duen eragina

Kanpoaldeko behe-mailan dagoen sedimentu-bolumenaren aldakuntzaren eta itsas mailaren igoeraren arteko erlazioa honako hau da:

$$\frac{\Delta V_{eq}}{V_{eq,act}} = \left( 1 + \frac{(\Delta\eta - \alpha)A_f}{\Omega_{act}} \right)^c - 1$$

$\Delta V_{eq}$  kanpoaldeko behe-mailaren bolumenaren aldakuntza da ( $m^3$ ) eta  $c$  proportzionaltasun-koefizientea da.

#### Marea-prisma handitzearen eragina marea-kanalen bolumenean

Kanpoaldeko behe-mailan dagoen sedimentu-bolumenaren aldakuntzaren eta itsas mailaren igoeraren arteko erlazioa honako hau da:

$$\frac{\Delta V_{MLWeq}}{V_{MLWeq,act}} = \left( 1 + \frac{(\Delta\eta - \alpha)A_f}{\Omega_{act}} \right)^E - 1$$

non,  $\Delta V_{MLWeq}$  marea-kanalen bolumenaren aldakuntza den ( $m^3$ ) eta  $E$  proportzionaltasun-koefizientea den.

#### Karakterizazio morfologikoa eta proportzionaltasun-koefizienteak

Jarraian, estuarioko elementu morfologiko nagusien karakterizazio-prozesua deskribatzen da:

- Marearen prisma ( $\Omega$ ) eskuragarri zeuden batimetriekin kalkulatu zen itsasbeheraren/itsasgora biziaren batez besteko koten artean dagoen bolumena itsasoaren batez besteko mailarekiko.
- Atal kritikoaren ( $A_E$ ) eremua lortzeko, kontuan hartu ziren itsasoaren batez besteko maila eta estuario bakoitzaren bokaleko batimetria.
- Kanpoaldeko behe-mailaren bolumena ( $V$ ).
- Marea-kanalen bolumena ( $V_{MLW}$ ) 4 m-ko marea biziko lasterketa baten itsasbehera-mailarekiko dagoen batimetriarekin kalkulatu zen.
- Badiaren eremua ( $A_b$ ) marearen sartze handienaren arabera kalkulatu zen.
- Barrualdeko behe-mailek ( $A_f$ ) hartzen zuten eremua 4 metroko marea biziko lasterketa baten itsasbehera-mailaren gaintik dagoen badiaren eremua zela kalkulatu zen.
- Barrualdeko behe-mailek hartzen duten bolumena ( $V_f$ ) 4 m-ko marea biziko lasterketa baten itsasbehera-mailatik gora dagoen sedimentu-bolumena da.

Aztertutako estuarioetako elementu morfologikoetan dituen ondorioak kalkulatzeko, honako hau hartzen da kontuan:

- Itsas mailaren igoera da perturbazio bakarra ( $\Delta\eta$ ).

- Estuarioen konfigurazio morfologikoaren ondorioz, badiaren eremua  $\Delta\eta$ -rekin konstante mantentzen dela kontsideratzen da.
- Estuarioak oreka dinamikotik hurbil dagoen hasierako egoera batetik abiatzen direla onartzen da.

## Turismoaren gaineko arriskua

Hondartzako turismoaren higadura-arriskua zenbatesteko, Asturiasen aplikatutako metodologia erabili da (Toimil et al., 2018). Aztertu den hondartzetan, hondartzako  $m^2$ -ko jolas-erabileraren balio-galerari dagokionez, higadura-arriskuaren ondorioak ebaluatu dira. Laburbilduz, hauek dira urrats metodologikoak:

- Hondartzako erabiltzaileak erabilitako espazioa ebaluatzea.
- Jolas-zerbitzuaren urteko ordu-kopuruaren ebaluazioa, kontuan hartuta bainu-denboraldiaren iraupena, eguneko lanaldia eta erabilera-tasa efektiboaren estimazioa.
- Hondartzako  $m^2$ -ko jolas-erabileraren balioaren estimazioa.
- Hondartza lehorraren galeraren balorazio ekonomikoa eta kontabilitatekoa, hondartzaren kokapena, kalitatea eta luzera kontuan hartuta.
- Hondartza bakoitzeko arriskua kalkulatzeko, agertoki bakoitzean galdutako azalera metro karratuko kontabilitate-balioarekin biderkatzen da.

## Mugak

Uholde-analisiaren kasuan aipatu bezala, gauza bera gertatzen da hondartzetako higadurarako; emaitzak oso baldintzatuta daude abiapuntuko informazioarekin, hurbilketekin eta hartutako onarpenekin. Turismoaren gaineko arriskuaren estimazioari dagokionez, IHCantabriaren erreferentziako dokumentuetan eta Toimil et al., 2018n deskribatutako mugak kontsulta daitezke. Honako muga hauek nabarmentzen dira:

- Topografiari eta batimetriari dagokienez, eremu batzuei buruz ez dago marearteko informazio onik; kartografia-jasotzeen datak falta dira hondartzen profila ezagutzeko (udakoa edo negukoa), eta alderdi hori garrantzitsua da hondartza lehorraren azalera ezagutzeari dagokionez.
- Hondartza batzuetan, hondartzen ezaugarri sedimentarioen edo elementu morfologikoen karakterizazioaren gabeziak daude. Zorionez, Zarautzen badira urte batzuk bideomonitorizazio-sistemak daudela, hondartzako portaera-ereduak baliozkotzeko datu onak eman dituztenak.

# KONTUAN HARTUTAKO AGERTOKIAK

## UHOLDE-AGERTOKIAK

### Klima-agertokiak

Denbora horizonteak gaur egungoak dira, 2050 (epe ertaineko aldaketak) eta 2100 (epe luzeko ondorioak). Horizonte horietan oinarrituta, 100 eta 500 urteko itzulera-denborako muturreko olatuak eta itsasoaren batez besteko mailaren igoera desberdinak konbinatzen dituzten hamar agertoki definitu ziren. Horiek guztiak IPCCren RCP 4.5 eta RCP 8.5 egoeren batez besteko balioak dira, Slangen et al., 2014ren bidez tokian-tokian aldatutako euskal kostaldean, itsasoaren batez besteko mailaren igoera +100 cm-koa izan ezik, kasu ezkorrena baita.

Jarraian, aztertutako hamar klima-agertokiak zerrendatu eta laburbildu dira:

- **1. agertokia. T1 - Gaur egungo klima.** 100 urteko itzulera-denbora muturreko gertaeraren uholde-agertokia eta egungo klima.
- **2. agertokia. T2 - Gaur egungo klima.** 500 urteko itzulera-denbora muturreko gertaeraren uholde-agertokia eta egungo klima.
- **3. agertokia. SLR1 + T1 - 2050 horizontea.** Itzulera-denbora = 100 urteko muturreko gertaera eta +26 cm-ko itsas mailaren igoera (SLR 2050 RCP 4.5 eta 8.5) konbinatzen ditu.
- **4. agertokia. SLR1 + T2 - 2050 horizontea.** Itzulera-denbora = 500 urteko muturreko gertaera eta +26 cm-ko itsas mailaren igoera (SLR 2050 RCP 4.5 eta 8.5) konbinatzen ditu.
- **5. agertokia. SLR2 + T1 - 2100 horizontea.** Itzulera-denbora = 100 urteko muturreko gertaera eta +51 cm-ko itsas mailaren igoerako agertokia (SLR 2100 RCP 4.5).
- **6. agertokia. SLR3 + T1 - 2100 horizontea.** Itzulera-denbora = 100 urte eta +70 cm-ko itsas mailaren igoerako agertokia (SLR 2100 RCP 8.5).
- **7. agertokia. SLR2 + T2 - 2100 horizontea.** Itzulera-denbora = 500 urte eta itsas mailaren igoera +51 cm (SLR 2100 RCP 4.5).
- **8. agertokia. SLR3 + T2 - 2100 horizontea.** Itzulera-denbora = 500 urte eta itsas mailaren igoera +70 cm (SLR 2100 RCP 8.5).
- **9. agertokia. SLR4 + T1 - 2100 horizontea.** Agertoki ezkorrena, non itzulera-denbora = 100 urteko muturreko gertaera eta itsas mailaren +100 cm-ko igoera konbinatzen diren.

- **10. agertokia. SLR4 + T2 - 2100 horizontea.** Agertoki ezkorrena, non itzulera-denbora = 500 urteko muturreko gertaera eta itsas mailaren +100 cm-ko igoera konbinatzen diren.

## Sistema sozioekonomikoaren gaineko uholde-arriskuaren agertokiak

Sistema sozioekonomikoaren gaineko uholde-arriskua zehazteko erabilitako agertokiak klima-agertokiak eta agertoki sozioekonomikoak gurutzatuz lortu ziren (biztanleriaren aldaketak baino ez zituen kontuan hartu), baita hiru denbora-horizonteak ere: oraingoa, 2050 eta 2100.

Agertoki sozioekonomikoetan, honako hauek izan ziren denbora-proiekzioei dagokienez erabili ziren hurbilketak:

- 2100eko biztanleriaren hazkundera EUSTATEk 2061ean aurreikusitakoaren antzekoa izango zela onartu zen 2018.
- Bestalde, biztanleriaren banaketa espaziala gaur egungoaren berdina izango dela onartu zen (bai 2050ean, bai 2100ean).
- Adierazle ekonomikoen, kapital-stockaren eta BEGaren kasuan, etorkizuneko balioak egungoen berdinak izango zirela onartu zen.
- Sektore ekonomikoko langile-kopuruari dagokionez, 2050erako eta 2100erako balioak egungoen berdinak izango direla onartu zen.

Biztanleriari dagokionez, biztanleriaren banaketa espaziala konstantea da denboran zehar. Hala ere, eragindako gizabanakoen kopurua ebaluatzeko, hiru agertoki demografiko hartu ziren kontuan (EUSTAT 2018ko iragarpenetan oinarrituta):

- 1. agertoki demografikoa. Biztanleria konstantea:
- 2. agertoki demografikoa. Biztanleria handitzen da: % 10,68 2050 urtean eta % 11,60 2100 urtean.
- 3. agertoki demografikoa. Biztanleria murrizten da: % 12,94 2050 urtean eta % 19,81 2100 urtean.

## Uholde-arriskuaren agertokiak sistema naturalaren gainean

Uholdeak sistema naturalean duen arriskua aztertzeke, aurrez deskribatutako hamar agertokiak hartu ziren kontuan. Ez ziren aldaketatzat jo egungo sistema naturala definitzen duten esposizioa eta kalteberatasuna.

## HONDARTZETAKO HIGADURA AGERTOKIAK

### Klima-agertokiak

Bi agertoki eta bakoitzaren konfiantza-tarteak aztertu ziren, eta sei agertoki posible sortu ziren: batetik, inpaktu-agertoki ertaina (RCP 4.5), +29 eta +72 cm arteko itsas maila duena, eta, bestetik, inpaktu handiagoko agertokia (RCP 8.5), +42 cm eta ia +100 cm arteko itsas maila duena XXI. mendearen amaierarako (Slangen et al., 2014).

### Higadura-arriskuaren agertokiak

Higaduraren ondoriozko arriskuaren ebaluazioan aintzat hartutako agertokiak jarraian deskribatzen dira:

- **SLR1 agertokia.** +26 cm-ko itsas mailaren batez besteko igoera kontuan hartzen den agertokia 2050. urteko horizonterako, eta IPCCren RCP 8.5-ko tarteko agertokiari dagokio.
- **SLR2 agertokia.** +51 cm-ko itsas mailaren batez besteko igoera kontuan hartzen den agertokia 2100. urteko horizonterako, IPCCren 4.5 tarteko agertokian.
- **SLR3 agertokia.** 70 cm-ko itsas mailaren batez besteko igoera kontuan hartzen den agertokia 2100. urteko horizonterako, IPCCren 8.5 tarteko agertokian.
- **SLR4 agertokia.** +100 cm-ko itsas mailaren batez besteko igoera kontuan hartzen den agertokia 2100. urteko horizonterako, IPCCren RCP 8.5 gehieneko agertokian.

Aipatu behar da RCP 4.5 agertokia ere aztertu zela 2050erako, +26 cm-ko igoerarekin. Hala ere, azkenean, ez zen agertokizat hartu, emaitzak RCP 8.5aren oso antzekoak eta baikorrak izan baitziren urte horretarako, eta itsasoaren batez besteko mailaren igoera.

Asturiasko kasu pilotuan bezala, higadura-arriskuaren egoeretan kliman baino ez ziren aldaketak aurreikusi. Agertoki sozioekonomikoari etengabe eusteko hipotesia onartu zen, hau da, gizartearen soldata-egiturari, erabiltzaileen lehentasunei eta azterlan honen xede diren hondartzek gaur egun eskaintzen dituzten zerbitzu osagarriei etengabe eustea erabaki zen.

## EMAITZAK

KOSTAEGOKIko emaitza georeferentziatuak web-bisorean (<https://gis.ihobe.eus/kostaegoki>) eta, partzialki, geoEuskadi Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren webgunean (<https://www.geo.euskadi.eus>) kontsulta daitezke.

Oro har, aztertutako konpartimentuetan (biztanleria, uholde-arriskuan dauden eremuak, balio ekonomikoak, hondartzak, azpiegiturak eta natura-ingurunea) aurreikusitako inpaktu-maila moderatua da 2050erako; 2100ean, berriz, nabarmen larriagoa izango da, neurri handiagoan edo txikiagoan, emisio-egoeraren arabera eta, beraz, gertatzen den itsas mailaren igoeraren arabera.

## UHOLDEA

Jarraian, agertoki batzuetan lortutako uholdeen irudiak eta zenbait lekuren xehetasunak erakusten dira, eskura jarritako informazioaren adibide argigarri gisa.

**UHOLDEAK BILBOKO ITSASADARREAN, 2. AGERTOKIAN (EZKERREKO IRUDIA), 7. AGERTOKIAN (ERDIKO IRUDIA) ETA 10. AGERTOKIAN (ESKUINEKO IRUDIA)**



**UHOLDEA ZUMAIAN, 2. AGERTOKIAN (EZKERREKO IRUDIA), 7. AGERTOKIAN (ERDIKO IRUDIA) ETA 10. AGERTOKIAN (ESKUINEKO IRUDIA)**



**UHOLDEAK HONDARRIBIAN ETA IRUNEN, 2. AGERTOKIAN (EZKERREKO IRUDIA), 7. AGERTOKIAN (ERDIKO IRUDIA) ETA 10. AGERTOKIAN (ESKUINEKO IRUDIA)**



Taula honetan, egoera bakoitzean kaltetutako azalera osoa eta EAEko azaleraren ehunekoa agertzen dira (7.234 km<sup>2</sup>). 3. agertokian, itsasoaren batez besteko mailaren +26 cm-ko igoerarekin eta 100 urteko itzulera-denborarekin, komunitatearen azaleraren % 0,27 kaltetuko litzateke. 10. agertokian, ezkorrean, eragindako azalera % 0,38koa izango litzateke.

### KLIMA-AGERTOKI BAKOITZEAN ERAGINA JASAN DEZAKEEN AZALERA ETA EHUNEKOA, EAEKO EREMU OSOAREKIN ALDERATUTA

KLIMA-AGERTOKIA	URAK HARTUTAKO AZALERA	EHUNEKOA
1-Gaur egun 100 urteko itzulera	1.676	0,23
2-Gaur egun 500 urteko itzulera	1.734	0,24
3-2050 26 cm 100 urteko itzulera	1.929	0,27
4-2050 26 cm 500 urteko itzulera	1.972	0,27
5-2100 51 cm 100 urteko itzulera	2.135	0,30
6-2100 70 cm 100 urteko itzulera	2.179	0,30
7-2100 51 cm 500 urteko itzulera	2.301	0,32
8-2100 70 cm 500 urteko itzulera	2.386	0,33
9-2100 1 m 100 urteko itzulera	2.659	0,37
10-2100 1 m 500 urteko itzulera	2.718	0,38



Eranskinen atalean, urak hartutako azaleraren emaitzak jaso dira, udalerraren arabera (eragina jasan ditzaketen hektareak eta udalerririkiko ehunekoa).

Gehien kaltetutako udalerriak Hondarribia eta Gautegiz-Arteaga dira, 210 ha baino pixka bat gehiago kaltetu baitira 10. agertokian, ezkorrena (itsas maila +100 cm handitzea, 500 urteko itzulera-denborarekin konbinatuta). Gutxien kaltetutako udalerriak Amoroto, Ajangiz, Loiu eta Zestoa izango lirateke, egoera berean hektarea bat baino gutxiago ukituta (10. agertokia).

### HONDARTZEN HIGADURA

Itsasertzaren batez besteko atzerakada eta inpaktu-maila, itsas mailaren gorakadaren agertokiak kontuan hartuta, hurrengo irudietan adierazten dira.

**HONDARTZEN AZALERA POTENTZIALKI HIGATUA (GOIAN) ETA DAGOKION HIGADURA-  
EHUNEKO POTENTZIALA (BEHEAN) ITSAS MAILA HANDITZEKO (SLR) AGERTOKI  
KLIMATIKOEN AZPIAN.**



Higadura-agertoki bakoitzean potentzialki galdutako hondartza-azalera eta azalera horren ehunekoa eranskinetako tauletan azaltzen dira. 15 ha hondartza gal litezke 2050erako, hau da, gaur egungo azaleraren % 16 eta 32 ha (% 32) eta 50 ha (% 51) artean 2100ean.

2050ean, itsasoaren batez besteko maila +26 cm-ko igoerarekin, azalera gehien galduko lukeen hondartza Zarautz izango litzateke, 19.000 m<sup>2</sup> inguru (gaur egungo azaleraren % 26), eta ondoren Ereaga, Plentzia eta Hondarribiko hondartzak, 16.000 m<sup>2</sup>, 15.000 m<sup>2</sup> eta 12.000 m<sup>2</sup>, hurrenez

hurren (egungo azaleraren % 24, % 17 eta % 11, hurrenez hurren). 2100ean, +100 cm-ko igoerarekin, hondartzarik kaltetuenak honako hauek izango lirateke: Zarautz, malekoien eremuan azaleraren % 90eko galera potentzialarekin (ez ordea duna-eremuan); Ereaga eta Hondarribia, 55.000 m<sup>2</sup> inguruko galerekin (egungo azaleraren % 83 eta % 49, hurrenez hurren); La Arena, 41.000 m<sup>2</sup>-rekin (egungo azaleraren % 66); eta Zurriola eta Plentzia, 30.000 m<sup>2</sup> inguruko galerekin (egungo azaleraren % 52 eta % 37, hurrenez hurren).

Laburbilduz, parametro hauek kalkulatu dira (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus atal metodologikoa):

- Kostaldeko lerroaren batez besteko atzerapen potentziala.
- Atzerapen potentziala muturreko erregimenean: itsas maila eta olatuak konbinatuz 5, 10, 25, 50, 100 eta 200 urteko itzulera-denborarako.
- Higadura jasan dezakeen azaleraren ehunekoa.
- Gal daitekeen harea-bolumena.

## ALDAKETA MORFOLOGIKOAK ESTUARIOETAN

Euskal kostaldeko estuario nagusien ezaugarri morfologikoen itsasoaren batez besteko maila igotzearen ondoriozko aldaketak aztertu dira: Nerbioi, Butroi, Oka, Artibai, Deba, Urola, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa 2050erako eta 2100erako. Euskal estuarioetara espezifikoki egokitutako oreka-ereduak aplikatu dira, Asturiasko<sup>10</sup> kasu pilotuaren metodologiari jarraikiz, eta bokaleen, kanpoaldeko behe-mailen, kanalen eta barrualdeko behe-mailen bilakaera aztertu da.

Estuario horietara isurtzen diren ibaiak luzera laburrekoak eta malda handikoak dira. Inguruko euri-jasak (urteko prezipitazioak, mendebaldetik ekialdera handitzen direnak eta 2500 mm-ra irits daitezkeenak) eta jariatze-uraren koefiziente handiak ia uholdeko erregimen hidrológico bat sortzen dute (López, 1986; García de Bikuña eta Docampo, 1990).

Euskal kostaldeko marea astronomikoa erdiarrunta da (2 itsasgora eta 2 itsasbehera eguneko), eta asimetria txiki bat eguneko zabaleran. Marea-lasterketa 1 m-koa da marea hiletan, eta 4,5 m-tik gorakoa marea bizienetan. Zentzu horretan, euskal estuarioak mesomarealak dira, nahiz eta estuario makromarealetako ezaugarriak dituzten (González et al., 2004).

Gogoeta orokor horiekin, ibaien emaria eta marea dira euskal kostaldeko estuarioetako ezaugarri dinamiko eta hidrografikoen bi baldintzatzaile nagusiak.

---

<sup>10</sup> [https://www.miteco.gob.es/es/costas/temas/proteccion-costa/informe\\_final\\_act\\_1\\_asturias\\_tcm30-163199.pdf](https://www.miteco.gob.es/es/costas/temas/proteccion-costa/informe_final_act_1_asturias_tcm30-163199.pdf)

Estuarioak aztertzeko erabiltzen diren oreka-ereduak estuarioko elementu morfologikoen arteko harreman enpirikoetan<sup>11</sup> (bokalea, barrualdeko behe-mailen bolumena, kanpoaldeko behe-mailaren bolumena eta barruko marea-kanaletako materiala) eta marea-prisman (marea estuarioan igotzean sartzen den eta jaistean ateratzen den ur-bolumena) oinarritzen dira. Eredu horiek estuarioetako elementu morfologikoei buruzko informazio orokorra ematen duten arren, ez dira gai elementu bakoitzak izandako denbora-bilakaera deskribatzeko, ezta banaketa espaziala ere.

Valencia et al., 2004ko kartografia erabili da, zeinak eskuragarri zeuden topografia eta batimetria berrikusi zituena. Kontuan izan behar da, halaber, Euskadiko ia estuario guztiek esku-hartze handia dutela, dragatzeak, bideratze-lanak, portuak eta abar. Beraz, lortutako emaitzak kontu handiz interpretatu behar dira.

Euskadiko estuarioetako aldaketa-adierazleek antzeko portaera erakusten dute. Okako estuarioak izango luke aldaketa-tasa handiena (bai 2050erako, bai, batez ere, 2100eko egoeretan), eta Oiartzungo estuarioak (Pasaia) jasango luke eragin txikiena. Adierazle horiek kalkulatzeko, Asturiasko kasu pilotuan erabilitako hipotesi berberak hartu dira kontuan. Hurrengo taulan, estuario bakoitzerako ondorioak agertzen dira.

## 2050EKO ETA 2100EKO EUSKAL ESTUARIOETAKO ONDORIO MORFOLOGIKOEN ZENBATESPENA. ALDAKETA-EHUNEKOAK

	Barrualdeko behe-mailen bolumen-defizita		Bokaleko sekzio kritikoaren gehikuntza		Kanpoaldeko behe-mailaren bolumenaren gehikuntza		Marea-kanalen bolumenaren gehikuntza	
	2050	2100	2050	2100	2050	2100	2050	2100
<b>Nerbioi</b>	9	34	2	7	4	14	3	11
<b>Butroi</b>	11	40	8	30	16	65	13	50
<b>Oka</b>	7	26	13	49	27	1,18	21	88
<b>Artibai</b>	9	34	4	15	8	32	6	25
<b>Deba</b>	8	29	7	27	15	59	12	46
<b>Urola</b>	13	48	3	13	7	27	6	21
<b>Urumea</b>	9	34	3	12	6	25	5	20
<b>Oiartzun</b>	10	36	1	3	2	6	1	5
<b>Bidasoa</b>	9	35	1	5	3	10	2	8

<sup>11</sup> <http://www.revistaaquatic.com/ojs/index.php/aquatic/article/view/122/111>

Adibide gisa, Okan eta Oiartzunen 2050erako eta 2100erako espero diren ondorioak deskribatzen dira:

- Kalkuluen arabera, barnealdeko behe-mailek sedimentu-defizita izan lezakete orekari dagokionez, eta kota handitzeko joera izango dute. Orekara iristeko behar den igoera honako hau izango litzateke: (1) Okan % 7 eta % 26, hurrenez hurren, 2050 eta 2100. urteetarako, eta (2) Oiartzunen % 10 eta % 36.
- Bokaleak sekzio kritikoa handitzeko joera izango luke, egoera orekatu berri bat lortu arte. Orekara iristeko behar den igoera honako hau izango litzateke: (1) Okan % 13 eta % 49, hurrenez hurren, 2050erako eta 2100erako, eta (2) Oiartzunen % 1 eta % 3.
- Kanpoaldeko behe-mailetan bolumen-defizita sortuko litzateke, eta oreka dinamikoa berrezartzeko konpentsatzeko joera izango litzateke. Orekara iristeko behar den igoera honako hau izango litzateke: (1) Okan % 27 eta % 118 2050 eta 2100 urteetarako, hurrenez hurren, eta (2) Oiartzunen % 2 eta % 6.
- Marearteko kanaletan bolumena handitu egingo litzateke, beste oreka dinamiko bat lortu arte. Oreka-egoera berrira iristeko behar den igoera: (1) Okan % 21ekoa eta % 88koa izango litzateke 2050erako eta 2100erako hurrenez hurren, eta (2) Oiartzunen % 1ekoa eta % 5ekoa.

## **SISTEMA SOZIOEKONOMIKOAREN GAINEKO ARRISKUA**

### **Biztanleria**

Kontuan hartu behar da, nolana ere, emaitza horiek gertatzeko probabilitate oso txikiko egoeretan gertatuko liratekeela, 100 eta 500 urteko itzulera-denborekin (etxebizitzetara eragitean sortuko litzatekeen kaltearen larritasunarekin bat datozen balioak), instalazioetan, atzerapenetan edo defentsa-obretan egokitzapen-neurririk hartu gabe, eta erakusten dutela aldagai horren arrisku-mailak (behin-behinean kaltetutako biztanleria) gora egin duela itsas mailaren igoerak baino.

Eranskinetan, hautatutako hiru agertoki demografikoetan udalerrri bakoitzean eragina izan dezakeen biztanleriatik lortutako emaitzak agertzen dira: 1. agertoki demografikoa, non biztanleria konstante mantentzen den; 2. agertoki demografikoa, non biztanleria handitzen ari den eta 3. agertoki demografikoa, non biztanleria jaisten ari den.

Kontuan hartutako agertoki klimatiko bakoitzean eragina izan dezakeen biztanleria, kontuan hartuta, gainera, biztanleria konstante mantentzen dela 2050ean eta 2100ean, honako taula honetan laburbiltzen da.

## EUSKAL HERRIAN ERAGINA JASAN DEZAKETEN PERTSONEN KOPURUA. 1. AGERTOKI DEMOGRAFIKOA. BIZTANLERIA KONSTANTEA

KLIMA-AGERTOKIA	ERAGINDAKO BIZTANLEAK (PERTSONA KOPURUA)
1-Gaur egun 100 urteko itzulera	7.847
2-Gaur egun 500 urteko itzulera	8.515
3-2050 26 cm 100 urteko itzulera	15.008
4-2050 26 cm 500 urteko itzulera	15.697
5-2100 51 cm 100 urteko itzulera	21.932
6-2100 70 cm 100 urteko itzulera	23.033
7-2100 51 cm 500 urteko itzulera	25.509
8-2100 70 cm 500 urteko itzulera	33.961
9-2100 1 m 100 urteko itzulera	39.842
10-2100 1 m 500 urteko itzulera	42.318

### 1. agertoki demografikoa. Biztanleria konstantea

Egungo klimaren emaitzei dagokienez, bai 100 urteko itzulera-denboraren gertaeraren agertoki adierazgarriko, bai 500 urteko itzulera-denboraren gertaeraren agertokirako (1. agertokia eta 2. agertokia), udalerrri kaltetuena Erandio izango litzateke, Hondarribia eta Irun atzetik dituela. 100 urteko itzulera-denboraren agertokiaren kasuan (1. agertokia), Erandion 5.434 pertsonari eragingo litzazieke, Hondarribian 1.070 pertsonari eta Irunen 899 pertsonari.

2050ean, Erandio, Hondarribia eta Irun ere izango lirateke eragin handiena jasango luketen udalerrriak. Adibidez, itsasoaren batez besteko mailaren +26 cm-ko igoerako agertokian, 100 urteko itzulerarekin (3. agertokia), Erandion 6.782 pertsonari eragingo litzazieke, Irunen 3.738 pertsonari eta Hondarribian 1.315 pertsonari.

2100erako, itsasoaren batez besteko mailaren +51 cm-ko igoerako agertokian, 100 urteko itzulera-denborarako (5. agertokia), Erandio, Irun eta Donostia izango lirateke biztanleria-kopuruaren aldetik eragin handiena jasango luketen udalerrriak, 7.803, 5.225 eta 1.918 biztanlerekin, hurrenez hurren.

Bestalde, 2100ean, +70 cm-ko igoerarekin eta 500 urteko itzulera-denborarekin (8. agertokia), Erandio, Getxo, Irun eta Donostia izango lirateke eragin handiena jasango luketen udalerrriak.

Erandio 8.373 biztanle kaltetunekin, Getxo 6.381 kaltetunekin, Irun 6.256rekin eta Donostia 3.257rekin.

2100 horizonteko agertokiaren ezkorrenaren kasuan, itsas maila 1 m igo eta 500 urteko itzulera-denbora (10. agertokia) kontuan hartuta, udalerrri kaltetuenak, kalte-arriskua jasateko biztanle-kopuruari dagokionez, honako hauek izango lirateke, beheranzko ordenan: Erandio (8.757), Getxo (7.729), Irun (6.995), Donostia (4.085), Zumaia (3.220), Bilbao (2.270) eta Orio (2.238).

## ***2. agertoki demografikoa. Biztanleria handitzen da (% 10,68 2050 urtean eta % 11,60 2100 urtean)***

2050. urtean, 1. agertoki demografikoan bezala, udalerrri kaltetuenak Erandio, Irun eta Hondarribia izango lirateke. Itsasoaren batez besteko mailaren 26 cm-ko igoerako agertokian, 100 urteko itzulera-denbora ekitaldirako (3. agertokia), Erandion 7.506 pertsonari eragingo lieke, Irunen 4.137 pertsonari eta Hondarribian ia 1.500 pertsonari.

2100. urtean, itsasoaren batez besteko maila 70 cm-koa izanik, itzulera-denbora = 500 urterako (8. agertokia), Erandio, Getxo, Irun eta Donostia izango lirateke kaltetuenak, 1. agertoki demografikoan bezala. Baina oraingoan, eragina jasan dezakeen biztanleria handiagoa da: Erandio (9.344 biztanle), Getxo (7.121), Irun (6.981) eta Donostia (3.634).

Agertoki ezkorrenaren kasuan, itsas maila +100 cm eta itzulera-denbora = 500 urte (10. agertokia) igotzearekin batera, biztanleria-kopuruari dagokionez gehien kaltetutako udalerrriak, beheranzko hurrenkeran, 1. agertoki demografikoan bezala, honako hauek izango lirateke: Erandio (9.772 pertsona), Getxo (8.625), Irun (7.806), Donostia (4.558), Zumaia (3.593), Bilbao (2.533) eta Orio (2.497).

## ***3. agertoki demografikoa. Biztanleria murrizten da (% 12,942050 urtean eta % 19,81 2100 urtean)***

2050ean, 1. eta 2. agertokia demografikoetan bezala, udalerrri kaltetuenak Erandio, Irun eta Hondarribia izango lirateke. Itsasoaren batez besteko mailaren +26 cm-ko igoerako agertokian, 100 urteko itzulera-denbora ekitaldirako (3. agertokia), Erandion 5.904 pertsonari eragingo zaie, Irunen 3.254 pertsonari eta Hondarribian 1.144 pertsonari.

Itsasoaren batez besteko maila 70 cm-ko igoerarekin 2100ean eta 500 urteko itzulera-denborarekin (8. agertokia), Erandio, Getxo, Irun eta Donostia izango lirateke kaltetuenak, 1. eta 2. agertokia demografikoetan bezala. Oraingoan, ordea, erasandako biztanleak gutxiago izango lirateke: Erandio (6.714 biztanle kaltetun), Getxo (5.116), Irun (5.016) eta Donostia (2.611).

2100. urterako agertokirik ezkorrean, +100 cm eta itzulera-denbora = 500 urte (10. agertokia), udalerrri hauek izango liriateke kaltetuenak: 2100. urterako agertoki ezkorrean, +1 m eta 500 urteko itzulera-denbora (10. agertokia), udalerrri hauek izango liriateke kaltetuenak: Erandio, Getxo, Irun, Donostia, Zumaia, Bilbo eta Orio.

### *Eragindako biztanleriaren ehunekoak, udalerrriaren arabera*

Eranskinetan, aztertutako eremuan kokatutako udalerrri bakoitzean, aintzat hartutako edozein agertoki demografikotan eta aintzat hartutako klima-agertoki bakoitzerako kaltetutako pertsonen ehunekoaren emaitzen taula jaso da. Eragin-ehunekoak berdinak dira planteatutako agertoki demografiko guztietan; izan ere, biztanleriaren aldakuntza lurraldean homogeneousat jotzen da. Erasandako populazioa handitu edo gutxitu arren, portzentajea aldaezina da.

Agertoki guztietan, Erandiok eta Eak izango dute biztanle-portzentaje handiena. Egungo klimarekin, 100 urteko itzulera-ekitaldiaren agertokiaren kasuan (1. agertokia), Erandion eta Ean biztanleen % 24k eta % 22k jasango lukete eragina, hurrenez hurren.

2050ean, +26 cm igoera eta 100 urteko itzulera-denboraren agertokian (3. agertokia), Erandion eta Ean herritarren % 30i eta % 23,4ri eragingo lieke, hurrenez hurren. Agertoki horretan, Orio ere nabarmentzen da, biztanleriaren % 18rekin.

2100 horizonte urteko emaitzei dagokienez, batez besteko mailaren +51 cm-ko igoerako eta 100 urteko itzulera agertokian (5. agertokia), beheranzko hurrenkeran, hauek izango liriateke eragin-portzentaje handienak dituzten udalerrriak: Erandio (% 34), Orio (% 26), Ea (% 24) eta Zumaia (% 14). 100 urteko itzulera-denborarekin, baina +70 cm-ko igoerarekin (6. agertokia), eragindako biztanleria % 37ra igoko litzateke Erandion, % 32ra Orion, % 19ra Zumaian eta % 13ra Busturian.

2100erako agertoki ezkorrean, udalerrri hauek izango liriateke kaltetuenak, beheranzko hurrenkeran: Erandio (% 39), Zumaia (% 34), Ea (% 27), Hondarribia (% 18), Busturia (% 16) eta Deba (% 12).

### **Langileak, jarduera-sektoreen arabera**

Ez dago langile-kopuruari buruzko informazio zehatzik, eskuragarri dauden datuek kategoria desberdinak adierazten dituzte langile-kopuruaren arabera, eta haietako bakoitzaren barruan langile-kopuru minimo bat eta gehieneko kopuru bat daude; analisian, batez besteko balioa erabili da tarte bakoitzaren barruan.

Kontuan izan behar da etorkizuneko agertoki guztietan egungo jardueraren, enpresaren edo instalazioaren kokapen bera hartzen dela kontuan, eta biztanlerian gertaera horien maiztasun txikiari buruzko iruzkin bera aplikatu behar dela (100 eta 500 urteko itzulera-denbora).

Jarduera-sektore bakoitzean eragina jasan dezaketen langileen batez besteko kopuruaren estimazio bat adierazten da udalerrri bakoitzeko, eta, gainera, sektore bakoitzean eragina jasan dezaketen langileen ehunekoaren estimazio bat, itsas mailaren igoerari eta itzulera-denborari dagokienez kasurik txarrenari dagokionez (10. agertokia: 2100erako, +100 cm eta itzulera-denbora = 500 urte).

Sektore eta agertoki bakoitzerako, udal mailako emaitza zehatzak kontsulta daitezke eranskinetan.

### *Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektorea*

Agertokirik ezkorrean, 10. agertokian, sektore horretan eragin handiena izango lukeen udalerrria Hondarribia izango litzateke, 416 langilerekin (hau da, sektorearen % 44 udalerrri horretan), eta ondoren Ondarroa eta Orio, 194 (% 19) eta 113 (% 57) langilerekin, hurrenez hurren.

### *Industria eta energia sektorea*

#### **Manufaktura-industriaren taldea**

10. agertokian, industria mota horretan kaltetuena Erandio izango litzateke 2.263 langilerekin (udalerrri horren % 47), ondoren Leioa eta Zumaia, 1.757 eta 1.404 langilerekin, hurrenez hurren (% 70 eta % 42). Ehunekotan, agertoki ezkor horretan, Muruetako udalerrria nabarmenduko lirateke, % 100eko eragin-arriskuarekin, bai eta Hondarribia eta Ondarroa ere. Udalerrri horietan, manufaktura-industriako langileen erdiei eragingo lieke haien instalazioak urak hartzeak.

#### **Gainerako jarduerak**

Jarduera hauetan hurrengoak sartzen dira: erauzketa-industria; energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua hornitzeko jarduerak; eta ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa. Agertoki ezkorrean, gehien erasandako udalerrria Erandio izango litzateke, 606 langilerekin (% 91), eta ondoren Sestao, 375 langilerekin (% 98).

### *Eraikuntza-sektorea*

Agertoki ezkorrean, 10. agertokian, sektore horretan eragin handiena duen udalerrria Erandio da, 1.491 langilerekin (% 37), eta ondoren Bilbo eta Irun, 559 eta 300 langilerekin, hurrenez hurren (% 3 eta % 8). Ehunekotan, eta agertoki ezkor honetan, Oriok eta Zumaiak sektore horretan dituzten enpleguen ia erdia eta herena eragina jasango lukete, hurrenez hurren.

## Zerbitzu-sektorea

### **Merkataritza, ostalaritza eta garraioa**

Agertoki ezkorrean, jarduera horiek Erandio jasango lukete eragin handiena, 2535 langileri eragingo lieketelako (jarduera multzo horren % 46,98). Atzetik datoz Irun 1627rekin (% 7), Getxo 1552rekin (% 13), Hondarribia 1380rekin (% 34) eta Donostia 1268 (% 2,4) langilerekin. Hala ere, Eak, Oriok eta Zumaiak afekzio-balio handiagoak dituzte ehunekotan, eta % 50etik gorakoak ere badira (Earen kasuan, % 57).

### **Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak**

10. agertokian, Erandion egongo dira jarduera horietan aritzen diren erasandako pertsona gehienak (2.498 langile); Getxon, 2.437; Bilbon, 2.180; eta Irunen, 1.268 (% 31, % 17, % 2 eta % 14, hurrenez hurren). Afekzio handiko ehunezko balioak dituzten beste udalerrri batzuk honako hauek dira: Ea, Orio, Zumaia edo Plentzia; udalerrri-mailan, afekzioa % 30 eta % 62 artekoa da.

### **Gainerako jarduerak**

Zerbitzu-sektoreko gainerako jardueren artean daude: informazioa eta komunikazioa; finantza- eta aseguru-jarduerak; higiezin-jarduerak; jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak; jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimendukoak, eta beste zerbitzu batzuk. Sektorre horretako udalerrri kaltetuena Getxo izango litzateke, 1230 langilerekin (% 8,7), ondoren Erandio eta Donostia, 1150 (% 23) eta 860 (% 1,4) langilerekin. Ehunekotan, eta agertoki ezkor horretan, Eak eta Zumaiak sektore horretako lanpostuen erdia baino gehiago erasanda izango litzakete (% 67 eta % 55, hurrenez hurren).

## **Bizitegi- eta industria-lurzorua (ekonomia jarduerak)**

Ondorengo taulan adierazten dira itsasoaren batez besteko mailaren igoerak eragin ditzakeen bizitegi- eta industria-lurzoruko azaleraren hektareak.

## EUSKADIN ERAGINA JASAN DITZAKETEN BIZITEGI- ETA INDUSTRIA(EKONOMIA JARDUERAK)-LURZORUKO AZALERAREN HEKTAREAK

KLIMA-AGERTOKIA	BIZITEGI-LURZORUA	INDUSTRIA-LURZORUA
1-Gaur egun 100 urteko itzulera	71	54
2-Gaur egun 500 urteko itzulera	76	60
3-2050 26 cm 100 urteko itzulera	129	97
4-2050 26 cm 500 urteko itzulera	136	104
5-2100 51 cm 100 urteko itzulera	173	127
6-2100 70 cm 100 urteko itzulera	180	133
7-2100 51 cm 500 urteko itzulera	199	168
8-2100 70 cm 500 urteko itzulera	230	184
9-2100 1 m 100 urteko itzulera	274	248
10-2100 1 m 500 urteko itzulera	285	261

Eranskinetako tauletan, udalerriak eraginpean har dezakeen bizitegi- eta industria-azalera ageri da. Bizitoki kasuan, 10. agertokian, Bilbo izango litzateke azalera handienari eragingo liokeen udalerria, gutxi gorabehera 62 ha-ko bizitegi-azalaren (hau da, % 5,6ko) eragina jasango bailuke (aztertutako probabilitate txikiko baldintzetako balizko afekzio gisa ulertuta, 500 urteko itzulera-denbora). Ondoren, azalera-hurrenkeran, Donostia (% 1,9), Getxo (% 3,8), Hondarribia (% 23,5), Plentzia (% 7,3) eta Erandio (% 14) egongo lirateke, eta haietan guztietan bizitegi-azalaren eragina 20-26 ha ingurukoa izango litzateke. Ehunekotan, eta agertoki ezkor horretan, Orioko udalerria nabarmenduko litzateke, eragina jasan dezakeen bizitegi-azalera osoaren herena baitu, eta hori da, hain zuzen, datu-serie osoko baliorik altuena.

Eragindako industria-lurzoruari dagokionez, 10. agertokian, Erandion izango luke eragin handiena azalaren; izan ere, udalerririk horretan 54 ha-ko industria-azalari eragingo litzaioke (% 27 arriskuan). Ondoren, Trapagaranen 38 hektarea inguru galduko lirateke (% 24), eta industria-azalaren afekzioa 27 ha inguru izango litzateke Leioan (% 21), Barakaldon (% 14) eta Sestaon (% 26). Ehunekotan, eta agertoki ezkor honetan, Muruetako udalerria nabarmentzen da, industria-azalaren % 85 inguru arriskuan baitu.

### Industria- eta bizitegi-kapitalaren stocka

Lurreko historiko bakoitzerako bizitegi- eta industria-kapitalaren stockaren galera potentziala adierazten da, bai milioi eurotan, bai ehunekotan. Bizkaiko egoitza-kapitalaren stockaren kasuan, 453 eta 976 milioi euro arteko eragina jasango luke, klima-agertokiaren arabera; zenbateko horiek

balioaren % 1,6 eta % 3,5 galduko lukete, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, bizitegi-kapitalaren stocka 311 (%1,4) eta 696 (% 3,1) milioi euro arteko eragina jasango luke, agertokiaren arabera.

**BIZKAIKO BIZITEGI- ETA INDUSTRIA-KAPITALAREN STOCKAREN GALERA  
 POTENTZIALA, MILIOI EUROTAN ETA GALDUA IZAN DAITEKEEN BALIOAREN  
 EHUNEKOAK**

<b>KLIMA-AGERTOKIA</b>	<b>BIZITEGI- KAPITALAREN STOCKA</b>	<b>INDUSTRIA-KAPITALAREN STOCKA</b>
<b>1-Gaur egun 100 urteko itzulera</b>	214 (% 0,76)	50 (% 1,00)
<b>2-Gaur egun 500 urteko itzulera</b>	233 (% 0,83)	54 (% 1,08)
<b>3-2050 26 cm 100 urteko itzulera</b>	453 (% 1,61)	104 (% 2,08)
<b>4-2050 26 cm 500 urteko itzulera</b>	487 (% 1,73)	110 (% 2,20)
<b>5-2100 51 cm 100 urteko itzulera</b>	602 (% 2,14)	138 (% 2,75)
<b>6-2100 70 cm 100 urteko itzulera</b>	688 (% 2,44)	193 (% 3,85)
<b>7-2100 51 cm 500 urteko itzulera</b>	624 (% 2,22)	146 (% 2,90)
<b>8-2100 70 cm 500 urteko itzulera</b>	810 (% 2,88)	215 (% 4,29)
<b>9-2100 1 m 100 urteko itzulera</b>	955 (% 3,39)	305 (% 6,07)
<b>10-2100 1 m 500 urteko itzulera</b>	976 (% 3,47)	321 (% 6,39)

Industria-kapitalaren stockari dagokionez, Bizkaian 104 eta 321 milioi euro artean izango lirateke, hau da, % 2,1 eta % 6,4, hurrenez hurren. Gipuzkoan, kaltetutako kapital industrialaren stocka 53 eta 99 milioi euro artekoa izango litzateke agertokiaren arabera, balio-galeraren % 1,7 eta % 3,2, hurrenez hurren.

## GIPUZKOAKO BIZITEGI- ETA INDUSTRIA-KAPITALAREN STOCKAREN GALERA POTENTZIALA, MILIOI EUROTAN ETA GALDUA IZAN DAITEKEEN BALIOAREN EHUNEKOA

KLIMA-AGERTOKIA	BIZITEGI- KAPITALAREN STOCKA	INDUSTRIA-KAPITALAREN STOCKA
1-Gaur egun 100 urteko itzulera	142 (% 0,63)	37 (% 1,21)
2-Gaur egun 500 urteko itzulera	155 (% 0,69)	43 (% 1,38)
3-2050 26 cm 100 urteko itzulera	311 (% 1,38)	53 (% 1,72)
4-2050 26 cm 500 urteko itzulera	326 (% 1,45)	57 (% 1,86)
5-2100 51 cm 100 urteko itzulera	442 (% 1,96)	66 (% 2,16)
6-2100 70 cm 100 urteko itzulera	508 (% 2,26)	78 (% 2,52)
7-2100 51 cm 500 urteko itzulera	462 (% 2,05)	69 (% 2,24)
8-2100 70 cm 500 urteko itzulera	555 (% 2,46)	81 (% 2,62)
9-2100 1 m 100 urteko itzulera	651 (% 2,89)	95 (% 3,07)
10-2100 1 m 500 urteko itzulera	696 (% 3,09)	99 (% 3,22)

### Industriaren eta zerbitzuen BEG

Bizkaian jasango luke eraginik handiena BEG industrialak, % 2 inguruko balio-galerekin 2050ean (103 eta 109 milioi euro artean), eta ia % 3 eta % 8 artekoa 2100. urtean (140 eta 390 milioi euro artean). Gipuzkoan, balio-galerak % 1 ingurukoak izango lirarteke 2050ean (39 eta 42 milioi euroko galerak), eta % 1 eta % 2 artekoak 2100erako kontuan hartutako egoeretan (49 eta 76 milioi euroko galerak).

Aztertutako zerbitzu-sektoreko jarduera-taldeen BEGaren ehunekoak antzeko proportzioak izango litzuke Bizkaian. Klima-agertokirik okerrenean (10. agertokia), Bizkaian eragina izan dezakeen BEGaren balio-galera oso antzekoa izango litzateke, % 2,5 ingurukoa, aztertutako edozein jarduera-talderentzat.

Gipuzkoan, berriz, “Merkataritza, ostalaritza eta garraioa” izango litzateke jarduera-talderik kaltetuena, eta, ondoren, “Beste zerbitzu batzuk”, % 5,19 eta % 4,23 galerekin, hurrenez hurren, klima-agertokirik okerrenean. “Beste zerbitzu batzuk” jarduera-taldearen barruan daude: informazioa eta komunikazioa; finantza- eta aseguru-jarduerak; higiezin-jarduerak; jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak; jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimendukoak, eta beste zerbitzu batzuk.

## BIZKAIKO INDUSTRIA ETA ZERBITZUEN BEGAREN GALERA POTENTZIALA, MILIOI EUROTAN, ETA GALDUA IZAN DAITEKEEN BALIOAREN EHUNEKOA

KLIMA-AGERTOKIA	INDUSTRIAREN BEG	ZERBITZUEN BEG MGO*	ZERBITZUEN BEG AP*	ZERBITZUEN BEG BESTELAKOAK *
1-Gaur egun 100 urteko itzulera	68 (% 1,32)	43 (% 0,74)	31 (% 0,71)	65 (% 0,70)
2-Gaur egun 500 urteko itzulera	72 (% 1,41)	44 (% 0,75)	32 (% 0,72)	65 (% 0,70)
3-2050 26 cm 100 urteko itzulera	103 (% 2,01)	57 (% 0,99)	37 (% 0,83)	87 (% 0,94)
4-2050 26 cm 500 urteko itzulera	109 (% 2,12)	60 (% 1,03)	38 (% 0,87)	88 (% 0,95)
5-2100 51 cm 100 urteko itzulera	140 (% 2,73)	73 (% 1,26)	51 (% 1,15)	105 (% 1,14)
6-2100 70 cm 100 urteko itzulera	217 (% 4,21)	82 (% 1,42)	61 (% 1,38)	118 (% 1,28)
7-2100 51 cm 500 urteko itzulera	151 (% 2,94)	75 (% 1,3)	52 (% 1,17)	108 (% 1,17)
8-2100 70 cm 500 urteko itzulera	242 (% 4,71)	118 (% 2,04)	91 (% 2,06)	184 (% 1,99)
9-2100 1 m 100 urteko itzulera	368 (% 7,15)	145 (% 2,5)	107 (% 2,43)	224 (% 2,42)
10-2100 1 m 500 urteko itzulera	390 (% 7,58)	150 (% 2,59)	110 (% 2,50)	234 (% 2,53)

\*MGO: Merkataritza, garraioa eta ostalaritza; AP: Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak; BESTELAKOAK: Beste zerbitzu batzuk.

## GIPUZKOAKO INDUSTRIA ETA ZERBITZUEN BEGAREN GALERA POTENTZIALA, MILIOI EUROTAN, ETA GALDUA IZAN DAITEKEEN BALIOAREN EHUNEKOA

KLIMA-AGERTOKIA	INDUSTRIAREN BEG	ZERBITZUEN BEG MGO*	ZERBITZUEN BEG AP*	ZERBITZUEN BEG BESTELAKOAK*
1-Gaur egun 100 urteko itzulera	28 (% 0,77)	13 (% 0,49)	43 (% 0,74)	9 (% 0,26)
2-Gaur egun 500 urteko itzulera	32 (% 0,87)	17 (% 0,65)	44 (% 0,75)	11 (% 0,30)
3-2050 26 cm 100 urteko itzulera	39 (% 1,06)	52 (% 1,93)	57 (% 0,99)	56 (% 1,54)
4-2050 26 cm 500 urteko itzulera	42 (% 1,14)	55 (% 2,06)	60 (% 1,03)	60 (% 1,62)
5-2100 51 cm 100 urteko itzulera	49 (% 1,33)	78 (% 2,90)	73 (% 1,26)	88 (% 2,40)
6-2100 70 cm 100 urteko itzulera	58 (% 1,58)	88 (% 3,28)	82 (% 1,42)	99 (% 2,70)
7-2100 51 cm 500 urteko itzulera	51 (% 1,38)	80 (% 2,98)	75 (% 1,3)	93 (% 2,55)
8-2100 70 cm 500 urteko itzulera	61 (% 1,64)	104 (% 3,88)	118 (% 2,04)	113 (% 3,09)
9-2100 1 m 100 urteko itzulera	71 (% 1,93)	115 (% 4,31)	145 (% 2,50)	137 (% 3,73)
10-2100 1 m 500 urteko itzulera	76 (% 2,04)	139 (% 5,19)	150 (% 2,59)	155 (% 4,23)

\*MGO: Merkataritza, garraioa eta ostalaritza; AP: Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak; BESTELAKOAK: Beste zerbitzu batzuk.

## ERAGINDAKO AZPISISTEMA KRITIKOAK IDENTIFIKATZEA

Aireportuetako eta heliportuetako azpiegituren kasuan, Hondarribiko aireportua izango litzateke arriskuan dagoen azpisistema kritiko bakarra.

Puntu motako azpiegituren kasuan: SEVESO industriak, hondakinak (atmosfera eta/edo uretara isurketak egiten dituzten enpresak; hondakin arriskutsuen, ez-arriskutsuen, hiri-hondakinen eta geldoen biltegia), ospitaleak, azpiestazio elektrikoak eta HUA (puntu-motako informazioa); hondakinei eta HUAei buruzko azpisistema kritiko bakarrak kaltetu litezke. Puntu motako gainerako azpiegiturek ez lukete eraginik izango 10. agertokian ere. Eranskinen atalean, aintzat hartutako agertokiak eragin ditzakeen puntu motako azpiegitura horiek identifikatzen dituen taula dago. Garrantzitsua da aipatzea ezinezkoa izan dela aztertutako erakundearen eragindako azalera zenbatestea, ezta eragindako pertsonen kopurua ere, ez baitago edukierei eta azalerei buruzko informaziorik. Jarraian erakusten den taulan, agertokiak eragin ditzakeen puntu motako azpisistema kritikoaren guztizko kopurua adierazten da.

### ERAGINDA IZAN DAITEKEEN PUNTU MOTAKO AZPISISTEMA KRITIKOEN KOPURUA

KLIMA-AGERTOKIAK									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
0	1	0	1	3	7	3	8	11	12

Arriskuan dagoen linea-motako azpisistema kritikoaren kasuan (autobideak eta autobideak eta trenbideak, hala nola metroa, trena, tranbia eta funikularra), zeinen ardatzaren trazatua baitago, eranskinetan dauden taulak kontsulta daitezke.

Ez dago edukierei eta azalerei buruzko informaziorik eta ezin izan da zenbatetsi erakunde bakoitzak eragindako azalera, ezta eragindako pertsonen kopurua ere. Faktore horiei esker, klima-aldaketak azpisistema horietan duen eragina zehatzago kategorizatu ahal izango litzateke.

Jarraian agertzen den taulan, proposatutako klima-agertoki bakoitzak kaltetutako linea motako azpisistema kritikoaren kopuru osoa agertzen da. Kontuan izan behar da, gainera, erabili den informazioan ez dagoela azpiegitura horren kotarik, eta, beraz, lurpeko elementuak edo elementu goratuak (zubiak, adibidez) urpean gera daitezkeela, baina pilen zimenduek soilik izan dezaketela eragina, adibidez, zubibideetakoek.

## ERAGINDA IZAN DAITEZKEEN LINEA MOTAKO AZPISISTEMA KRITIKOEN KOPURUA (ZIRKULAZIO-BIDEAK, TRENBIDEA, ETAB.) ETA BIDE-ZATIEN LUZERA GUZTIEN BATURA


KLIMA-AGERTOKIAK	URAK HARTUTAKO ZATIEN KOPURUA	URAK HARTUTAKO ZATI GUZTIEN LUZERA, METROTAN
1-Gaur egun 100 urteko itzulera	54	8.465
2-Gaur egun 500 urteko itzulera	60	8.904
3-2050 26 cm 100 urteko itzulera	97	12.958
4-2050 26 cm 500 urteko itzulera	104	13.932
5-2100 51 cm 100 urteko itzulera	127	22.348
6-2100 70 cm 100 urteko itzulera	133	30.200
7-2100 51 cm 500 urteko itzulera	168	23.768
8-2100 70 cm 500 urteko itzulera	184	37.716
9-2100 1 m 100 urteko itzulera	248	53.167
10-2100 1 m 500 urteko itzulera	261	56.694

## HONDARTZETAKO HIGADURAREN ONDORIOZKO TURISMOAREN GAINEKO ARRISKUA

Hurrengo grafikoan, hondartza bakoitzerako eta kontuan hartutako itsasoaren batez besteko mailaren igoerako agertoki bakoitzerako gal litekeen jolas-erabileraren balio ekonomikoaren estimazioa irudikatu da, galdutako eremuaren eta esleitutako kontabilitate-balioaren arabera. Hondartzen higadura-azalera potentzialaren 2026ko datu eguneratuak erabili dira arriskuaren zenbatespen hori egiteko.


Bere ezaugarriengatik eta itsas mailaren igoerak galdutako azaleragatik, aisialdi-erabileraren ondorioz galera gehien suposatzen duten hondartzak eszenatoki txarrean (mailaren +100 cm-ko igoera), Hondarribia (400 milioi) eta Ereaga (381 milioi) dira. Egoera berean, hurrengoak Zurriola (257 milioi) eta Bakio (191 milioi) lirateke.

## JOLAS-ERABILERA GALERA POTENTZIALA HONDARTZETAN, MILIOI EUROTAN



Jarrian, emaitzak erakusten dira, udalerrika. Getxon, Ereaga, Arrigunaga eta Aizkorri hondartzak dituen, gehien erasandako udalerria izango lirateke (488 milioi euro), eta, ondoren, Donostia eta Hondarribia (412 eta 400 milioi euro, hurrenez hurren).

## UDALEN JOLAS-ERABILERAREN GALERA POTENTZIALA, MILIOI EUROTAN



Euskal kostaldeko 38 hondartza ofizialetatik 28 hondar-hondartza aztertu ziren, olatuen dinamika nagusi zutenak. Hauek izan ziren ezaugarri horiek betetzen ez dituzten hondartzak eta azterketatik kanpo geratu zirenak (38 hondartza ofizialetatik 10): Areetako hondartza (Getxoko udalerrian ere bai), Gorlizko hondartza, Armintzako hondartza, Aritzatxu (Bermeon), Toña eta San Antonio (Sukarrietan), Laida (Ibarrangelun), Eako hondartza, Ogeiako hondartza (Ispasterren) eta Mutriku-portuko hondartza.

## SISTEMA NATURALAREN GAINEKO ARRISKUA

Taula eta grafiko hauetan, agertoki bakoitzean ingurumen-eremua karakterizatzeko erabilitako adierazleen gainean sor daitekeen eraginaren emaitzak agertzen dira.

### Fauna eta flora

Eranskinen atalean, eraginpean egon daitezkeen fauna- eta flora-espezieen banaketa-azaleraren estimazioaren emaitzak jaso dira, babes-figura eta ur-masaren arabera.

Agertoki ezkorrean, *Mustela lutreola* (bisoi europarra), izango litzateke espazio guztietan bere banaketa-azaleran eragin handiena izango lukeen espeziea, naturagune babestuetan izan ezik, horiek araudi autonomikotik eratortzen baitira. Banaketa-eremuari eragingo lioketen gainerako espezieak honako hauek izango liriateke: *Gasterosteus aculeatus* (arrain hiruarantza), *Hyla meridionalis* (hegoaldeko zuhaitz-igela), *Hydrobates pelagicus* (ekaitz-txori txikia) eta *Phalacrocorax aristotelis* (ubarroi mottoduna).

Florari dagokionez, 10. agertokian, *Zostera noltii* (zostera) izango litzateke bere banaketa-azaleran eragin handiena izango lukeen espeziea babestutako gune guztietan, araudi autonomikotik eratorritako naturagune babestuetan izan ezik. Espezie askok eragina jasango lukete banaketa-eremuan, baina *Zostera noltii*rena baino neurri txikiagoan.

## Batasunaren intereseko habitatak (BIH) eta EUNIS

Babes-figura, ur-masa eta uholde-egoera dela-eta arriskuan dauden BIH eta EUNISen azalerak eranskinetan adierazten dira. BIHen kasuan, egoera ezkorrean, 1170 motako habitatak (arrezifeak), 1130 motako habitatak (estuatioak) eta 1410 motako habitatak (larre gazi mediterraneoak, *Juncetalia maritimae*) izango liriateke banaketa-azalera eragina gehiago jasango luketenak, eta, neurri txikiagoan, 1420 motako habitatak (sastraka halofilo mediterraneoak eta termoatlantikoak (*Sarcocornetea fruticosi*)). Espezie ugari jasan lezakete eragina banaketa-eremuan, baina ez hain handia.

Agertoki ezkorrean, EUNIS X01 (estuatioak), A2.636 (paduretako ihitokiak, *Juncus maritimus*) eta B (kostaldeko habitatak) habitatek dute eraginik handiena Natura 2000 Sareko guneetan, biosfera-

erreserbetan, RAMSAR gunetan eta trantsizioko ur-masetan. Araudi autonomikotik datozen naturagune babestuetan, EUNIS B3.23 habitata (itsaslabarrak eta landaretzarik gabeko kostaldeko arroak) eta A1.211 habitata (*Pelvetia canaliculata* eta zirripedoak neurri batean ikusgai dagoen itsasertz harritsuak) nabarmenduko lirateke. Kostaldeko ur-masetan, bestalde, honako habitat hauek izan daitezke kaltetuak: A1.11 (muskulu eta/edo balano-komunitateak), A3.13 (olatuaren eraginpean dauden alga infralitoralaren komunitate pontikoak eta mediterraneoak) eta A3.15 (alga hostozabalen komunitateak)

Hala ere, hainbat espezieren banaketa-eremuak eragina izan lezake, baina neurri txikiagoan (ikus taulak eranskinetan).

## UHOLDEAK ETA EGOKITZAPENA PORTU-EREMUETAN

Arestian deskribatutako hamar agertoki klimatikoetan, marea astronomikoaren, meteorologikoaren eta olatuen konbinazioz uholdeak gertatzeko aukera txikia duten (itzulera-denborak, 100 eta 500 urtekoak) gertaerak izan ditzaketen zonak aztertu dira:

Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko hamabost portu-eremuak dira: Plentzia, Armintza, Bermeo, Mundaka, Ea, Elantxobe, Lekeitio eta Ondarroa (Bizkaia), Mutriku, Deba, Zumaia, Getaria, Orio, Donostia eta Hondarribia (Gipuzkoa). Hona hemen portu bakoitzeko emaitzak, laburbilduta:

- **Plentzia.** Plentzia, Butroeko estuarioan, mendaterik mendebaldekoena da, 1 ha-ko ur-geruza okupatzen du eta hirigunean integratuta dago. Egungo itsas mailaren arabera, 0,2 ha urpean gera daitezke; 2050ean, uholde-arriskuko eremua ez litzateke 0,3 ha-ra iritsiko. 2100. urterako, urak har ditzakeen eremuak 0,5 ha-koak izango lirateke, eta itsasoaren mailak +51 cm-ko igoera izango luke; +70 cm-koa bada, 1 ha; eta 1,2 ha-koa, +100 cm-koa bada.
- **Armintza.** Itsas mailaren igoeragatik inpaktu txikiena duena da. 1. agertokiaren (egungo itsas maila eta 100 urteko itzulera-denbora eta 2,8 ha-ko uholde-arriskua duen eremua) eta 10. agertokiaren (+100 cm eta 500 urteko itzulera-denbora eta 3 ha-ko uholde-arriskua duen eremua) artean 2.000 m<sup>2</sup> inguruko hedadura dago.
- **Bermeo.** Bermeo da olatuek eta portuko obra zibilek eragindako kalte handienak izan dituen herrietako bat. Egungo mailarekin, portuaren 4 hektarea inguru uholde-arriskuan daude, eta 2050erako 4,5 ha-koak izango lirateke. 2100ean, 51 cm-rekin, uholde-arriskuko eremuak 5 ha-raino iritsiko lirateke, 70 cm-koak, berriz, 5,4 eta 8,2 ha-koak, eta agertoki ezkorak (+100 cm-koak) 12 ha-raino. 2100erako, ia kai ertz guztiak eta portuko eraikin eta instalazioak egongo lirateke arriskuan.
- **Mundaka.** Portuaren neurriak txikiak direnez eta olatuetatik oso babestuta daudenez, itsas mailaren igoerak ez du uholde-arriskuko eremuen igoera nabarmenik eragiten. Aldekoen agertokiaren (1 ha) eta agertoki kaltegarrienaren (1,2 ha) artean, 2.000 m<sup>2</sup> inguruko gorakada

baino ez dago. Mundakako hirigunearen gaineko eragina mugatua izango litzateke, baita 100 cm-rekin ere.

- **Elantxobe.** Mundakako antzeko kasua, tamainagatik eta olatuetatik ondo babestuta dagoelako, baina neurri txikiagoan. Kasu horretan, gaur egungo agertokian 1,4 ha izatetik 1,5 ha baino pixka bat gehiago izatera igaroko litzateke agertoki txarrean (+100 cm eta 500 urteko itzulera-denbora). Hirigunea malda handiko hegaldan dagoenez, uholdeetan ia ez du eraginik izango.
- **Ea.** Porturik txikiena oso leku babestua da, marea goran baino ez da iristen bertara, eta oso jarduera gutxi egiten da udatik kanpo. Emaizten arabera, gaur egun ia portualde osoa urpean gera daiteke, eta hori ez dator bat kalteei buruzko informaziorik ez izatearekin (2014an, adibidez). Emaizak arreta handiagoz aztertzea proposatzen da etorkizuneko lanetan.
- **Lekeitio.** Ertaina da. Gaur egun, urak har ditzakeen azalera 2,8 ha dira, eta 2050ean 3 ha-ra iritsiko lirateke. Mendearen amaierarako, uholde-arriskuko eremuek gora egingo lukete, ia 4 hektarearaino, agertoki txarrean (+100 cm-ko mailaren igoera), eta, kasu honetan, portu-eremuen inguruko hiriguneei eragin diezaiekete.
- **Ondarroa.** 2050erako aurreikusitako itsas mailaren igoerak (+26 cm) uholde-arriskuko eremuak 2 ha inguru handitzea ekarriko du (gaur egun 7 hektareatik 9 hektareara). XXI. mendearen amaierarako igoera horrek uholde-arriskua 3 ha (+51 cm) eta 5 ha (+100 cm) artean handitzea ekarriko du. 2100erako, itsas maila baxuenaren igoeraren kasuan ere (+51 cm), arriskua handitzeak portuko ia elementu guztiei eragingo lieke.
- **Mutriku.** Gaur egun, 5 hektarea inguru daude uholde-arriskuan, eta 5,3 hektarea izango lirateke 2050ean. 2100erako, uholde-arriskuko eremuak 5,5 eta 6 ha artekoak izan daitezke +51 cm eta +70 cm-ko igoera-egoeretan, eta ia 7 hektareataraino iritsi daitezke +100 cm-ko igoerarekin. Portuaren barnealdea da babestua, eta 2100ean ere kaiaren ertzak soilik egongo lirateke arriskuan.
- **Deba.** Portuak egungo eta 2050eko egoeretako uholde-arriskuko eremuetan aldaketa gutxi ditu (<0,2 ha). Nabari da arrisku-maila oso nabarmen aldatu dela XXI. mendearen amaierarako; izan ere, 2100erako aurreikusitako hiru egoeretan, uholde-arriskua duten eremuak nabarmen handituko lirateke 1,2 eta 1,7 ha artean, eta, maila +70 cm edo gehiago igoz gero, uholde-arriskua duten eremu horiek portuaren mugakide diren hiri-eremuetara heda daitezke.
- **Zumaia.** Urolako estuarioaren barruan, olatuen babesean. Bai 2050erako aurreikusitako itsasoaren batez besteko mailaren igoerarekin (+26 cm), bai 2100ekoarekin (+51, +70 eta +100 cm), mendebaldeko ertzeko hiriguneei arrisku-maila nabarmen handituko lukete. Ekialdeko ertzean dagoen portu-eremuaren kasuan, arrisku-mailaren igoera garrantzitsua XXI. mendearen amaieran aurreikusten da. Gaur egungo agertokian eta 2050ean, bideratzeko hegoaldeko dikea eta Astilleroko zati bat urpean gera daitezkeen eremuetan kokatuko lirateke, eta beste horrenbeste esan daiteke 2100erako +51 eta +70 cm-ko egoeretan, agertokirik kaltegarrienaren kasuan (+100 cm-koa), ia portuko instalazio guztiak urpean gera daitezkeen eremuetan kokatuko lirateke.

- **Getaria.** Kantauriko portu seguruenetako bat da. Egungo egoera 2050eko egoerarekin eta itsas mailaren +26 cm-ko igoerarekin alderatuta, portuan eta inguruko eremuetan uholde-arriskua duten eremuen hazkundera oso apala da, baina +70 eta +100 cm-rako egoeretan, arriskuan dauden portu-eremuak nabarmen handituko lirateke.
- **Orio.** Bokaletik hurbilen dagoen jolas-dartsenak ez du inpaktuaren gehikuntza nabarmenik erakusten, ezta 2100erako 100 cm-rekin ere; hala ere, erriberatik gertuen dagoen hiri-eremuak eta estuarioaren beste eremu batzuek nabarmen handituko dute arrisku-maila.
- **Donostia.** Portu txikia eta nahiko babestua. Gaur egungo egoeretan, 2 ha arriskuan daude. 2050ean (+26 cm) azalera hori 0,3 ha handituko da, eta 2100ean eta +100 cm-tan 2,7 ha-ko azalera kaltetuko lirateke. Emaitez arrisku-maila handia erakusten dute gaur egun ere, baina emaitza horiek zuhurtziaz hartu behar dira, ez baitago emaitza hori babesten duen kalteei buruzko informaziorik.
- **Hondarribia.** Hondarribiak hiru portu-azpiegitura ditu:
  - **Babes-portua.** Oso ondo babestutako portua da, eta 2100 cm-ko itsas mailaren igoerak soilik ekarriko luke arrisku-eremuen igoera nabarmena.
  - **Hondarribiko Kirol-portua.** Hondarribiko hondartzaren eta Marina auzoaren artean dago. Egungo agertokian 0,5 ha baino ez lirateke egongo arrisku-eremuan (arrapalak eta kaiaren ertzeko tartekak); 2050eko horizontean, +26 cm-ko maila-igoerarekin, eremu horiek 0,7 ha-raino handituko lirateke dira pixka bat. 2100erako aurreikuspenak kaskarragoak dira, nahiz eta igoera moderatuagoa izan (+51 cm) portuko zabalgunek gehienak uholde-arriskuan egongo lirateke.
  - **Beteranoen Dartsena.** 246 amarralekuko kirol-dartsena hori Hondarribiko aireportuaren pistaren eta hiriaren erdialdearen artean dago. Beste portu-eremu batzuetan bezala, 2050erako aurreikusitako itsasoaren igoerak egungo klimaren antzeko arrisku-maila erakusten du, baina 2100erako inpaktu-maila nabarmen handituko litzateke, batez ere +70 eta +100 cm-ko igoerarekin.

Kalteei buruzko aurretiazko informazioak eta 2050erako aurreikuspenek ez dute justifikatzen, oraingoz, atzera egiteko neurriak planteatzea. Atxikitako eremuen inguruko hiriguneetan, batez ere Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko portuetan, gaur egungo arrisku-mailak eta 2050erako aurreikusitakoak ez dute igoera handirik erakusten, ez behintzat itsasoaren batez besteko mailaren +26 cm-ko igoerarekin.

Oro har, lortutako emaitzek adierazten dute babes- eta egokitze-neurriak funtsezkoak izango direla itsas mailaren igoerara egokitzeko, batez ere atxikitako lursailetan 2050erako horizontera egokitzeko. Portuko zabalguneeetan kota igotzeko, arrisku-eremuetako eraikinak babesteko eta babes-obren egonkortasuna ebaluatzeko neurri puntualak eraginkorrak izango dira XXI. mendearen erdialdera arte.

Aurreikuspenen arabera, 2100erako inpaktua askoz handiagoa izango da portuko instalazioak dituzten estuarioen barnealdeko hainbat herritan, Gipuzkoan (Zumaia eta Orio, bereziki) Bizkaian baino (Ondarroa eta Plentzia, portu-eremuak dituztenak).

Epe luzeagora, 2100era, helburua izan behar da kostaldeko kalteberatasuna ez handitzea arriskuan dauden eremuetako elementuekin, eta dauden elementuen arriskuaren bilakaera monitorizatzea, babes-neurriak aurreikusteko edo, hala badagokio, unean uneko erretiratzea.

Ozeanoaren eta meteorologiaren monitorizazioak, ekitaldien zaintzak eta kalteen tipologiaren eta bolumenaren inbentarioak aukera emango dute arriskuaren ebaluazioa epe luzeagoan hobetzeko.

## ONDORIOAK

Lanean kontuan hartutako eremu geografikoak 130.000 ha inguru hartzen ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren % 18. Bertan, 56.000 atari inguru daude, 1,3 milioi pertsona baino gehiago bizi direnetan (EAEko biztanleriaren ia % 60).

Emaitzen arabera, itsasertzeko tipologiaren ezaugarri den uholde bat gertatu da: labarrak dira nagusi, eta estuarioak eta hondartzak dira eragin handiena jasaten duten eremuak. 10. agertokian (ezkorrena), urak hartutako azalera gehien dituzten udalerriak (uholdeak izateko arriskua dutela ulertzen da) Hondarribia eta Gauegiz-Arteaga izango lirateke (>210 ha), eta ondoren Murueta (~150 ha). Hala ere, ehunekotan eta udalerrri osoari dagokionez, Murueta nabarmentzen da, azaleraren % 25 baino gehiago arriskuan baitu, baita Sestao eta Gauegiz-Arteaga ere (>% 15).

Higadura-analisiak (itsas mailaren igoerak sortutako eragina) emaitza hauek eman ditu: 28 hondartza aztertu ondoren, guztien artean 97 ha-ko azalera lehorra dutenak, 2050erako 15 ha inguru galduko direla espero da (% 15 inguru), eta 2100erako: 32 ha kasurik baikorrenean, 42 ha tarteko agertokian eta 50 ha ezkorrean. Hondartza lehorren galerak Itzuruni eragingo lioke gehien; Isuntza, Muriola eta Gaztetape RCP 4.5 agertokian (galdutako hondartza lehorren azaleraren % 35 baino gehiago) eta, Isuntza, Ondar Gain eta Ereaga (galdutako hondartza lehorren azaleraren % 75 baino gehiago) RCP 8.5 agertoki ezkorrenean.

Ekonomiari dagokionez, hondartza lehorren azalera-galerek 765 milioi euroko galerak ekarriko lituzkete 2050erako. Bestalde, 2100erako galerak 1.600 milioi eurokoak izango lirateke kasu baikorrenean, 2.200 milioi eurokoak tarteko agertokian eta 2.600 milioi euro inguruko agertoki ezkorrean. Emaitza horiek, balio ekonomikotzat jotzen direnak, tentuz aztertu behar dira, ebaluatzen zailak diren aldagai sozioekonomikoen mende baitago hondartzen epe luzeko inpaktuen balorizazio ekonomikoa. Turismoan eragin ekonomikoa izateko arrisku handiena duten hondartzak Ereaga, Hondarribia, Zarautz eta Plentzia izango lirateke 2050ean, eta, haiez gain, Deba, La Arena, Bakio eta Zurriola 2100ean.

Uholdearen azterketara itzuliz, kontuan hartu behar da, azterlan honen testuinguruan, "Afekzioa/uholdea" uholde-gertaerak jasateko aukera txikia dela. Egungo kliman, 2050ean eta 2100ean, uholde horren sakonera edo lodiera zehazten duen kartografia bat lortu da, birgertatze-aldi handiko gertaerekin (100 eta 500 urte), eskuragarri dagoen kartografiarik onenean jasotako konfigurazio geografikoarekin (babes-elementuak, bideratzeak, portuak, dikeak, etab.) eta egungo biztanleriaren banaketarekin. Informazio geoerreferentziatua duten emaitzak GIS web-bisorean (<https://gis.ihobe.eus/kostaegoki>) eta, partzialki, geoEuskadiren webgunean (<https://www.geo.euskadi.eus>) daude eskuragarri.

Osagai sozioekonomikoek duten eraginari dagokionez, 2050erako 15.000 pertsona ingururi eragin diezaieke eta 130 ha eta 100 ha inguruko bizitegi- eta industria-azalerari, hurrenez hurren. 2100. urtera arte, eta agertokirik baikorrean, uholdeak 22.000 pertsona ingururi eragingo lieke, 173 ha bizitegi-lurzoruri eta 127 ha industria-lurzoruri; tarteko agertokietan (7. eta 8. agertokiak), 23.000-34.000 pertsona ingururi, 180-230 ha bizitegi-lurzoruri eta 133-184 ha industria-lurzoruri, hurrenez hurren; eta, agertokirik ezkorrean, 42.000 pertsona baino gehiagori, 285 ha bizitegi-lurzoruri eta 261 ha industria-lurzoruri. Taula honek emaitza horiek laburbiltzen ditu.

### URPEAN GERA DAITEKEEN AZALERA OSOA, ERAGINDAKO BIZITANLERIA ETA KALTETUA IZAN DAITEZKEEN BIZITEGI- ETA INDUSTRIA-AZALERAK

ALDAGAIK	KLIMA-AGERTOKIAK									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
URAK HARTUTAKO AZALERA (HA)	1.676	1.734	1.929	1.972	2.135	2.179	2.301	2.386	2.660	2.718
BIZITANLERIA (PERTSONAK)	7.847	8.515	15.008	15.697	21.932	25.509	23.033	33.961	39.842	42.318
BIZITEGI- LURZORUA (HA)	71	76	129	136	173	199	180	230	274	285
INDUSTRIA- LURZORUA (HA)	54	60	97	104	127	168	133	184	248	261

Azpisistema kritikoaren gaineko eraginaren azterketak kalkulu osoak aireportu eta heliportuen kasuan bakarrik eskaintzen ditu. Bai zirkulazio-bideen kasuan, bai enpresa kritikoaren kasuan, ez dago edukierari eta azalera georreferentziatuari buruzko informaziorik; beraz, ezin izan da zenbatespenik egin kaltetutako pertsonen eta eremuen kopuruari buruz.

Analisiaren arabera, Hondarribiko aireportua litzateke eragina jasango lukeen aireportu-azpiegitura bakarra, eta, gainera, eragina azterlanean planteatutako edozein egoeratan gertatuko litzateke, nahiz eta, bistan denez, itsasoaren maila handiagoan eta itzulera-denbora luzeagoetan, afekzioa/uholdea handiagoa izango litzatekeen.

Zirkulazio-bideen eta trenbideen kasuan, 2050erako estimazioak aurreikusten du (batzuetan, 100 eta 500 urteko itzulera-denborekin) 12-13 km urpean geratuko liratekeela trenbideen tartean; eta 2100era, 22 km kasu baikorrean, 24 km tarteko agertokian eta 57 km ezkorrean.

Urak har ditzakeen bide-zatiak dituzten trenbideak eta zirkulazio-bideak Bilboko metroaren tranbia eta N-638 eta GI-3161 errepideak izango lirateke agertoki guztietan. Bilbo-Bermeo trenbideak eta BI-711 eta GI-636 errepideek urak har ditzakeen tartekak dituzte 2050 eta 2100 urteetan. Agertoki ezkorrean, urak har ditzakeen tartekak, arestian aipatutakoez gain, honako hauek dira: Pasaiaiko portuko trenbide sarea, La Naval-Sestao trenbide sarea, Madril-Irun, Bilbo-Donostia, Bilbo-Santurtzi, Bilbo-Muskiz, Alonsotegi-Burtzeña eta Lutxana-Sondika, bai eta N-636, BI-644, BI-735, BI-2122 eta GI-2137 zirkulazio-bideak ere.

Azpiegitura kritikoei buruzko emaitzak, batez ere lurpean egon daitezkeen edo zubibideetan barrena joan daitezkeen komunikazio-bideetan lortutakoak, azpiegituren instalazioa urpean gera daitezkeen eremuekin gainjarrita lortutako zenbatespenak dira. Ez dago tarte bakoitza zer kotatan dagoen elementu goratuen kasuan eta ez dira kontuan hartu babes- edo iragazgaitze-baliabideak ere, lurpeko elementuen kasuan.

Adierazle sozioekonomikoak lantzeko dauden hurbilketek eta onarpenek emaitzak eta horien interpretazioa baldintzatzen dituztela, eta, gainera, ez dagoela emaitzak kalibratzeko edo baliozkotzeko daturik, ezta gutxi gorabehera ere. Hori oso nabarmena da, bai aldagai sozioekonomikoetarako, bai uholde-orbanetarako, bai etorkizuneko hondartzetako higadura-efektuetarako. Muga horiek kontuan hartu beharko lirateke ondorengo lanetan.

Ingurumen-arriskuari dagokionez, agertoki ezkorrean, 10. agertokian, uholde-arriskuan dauden habitatak eta espezieak honako hauek izango lirateke:

- *Mustela lutreola* (bisoi europarra) bere banaketa-azalerari gehien eragingo liokeen fauna-espezia da, naturagune babestu autonomikoetan izan ezik (Biotopo Babestua eta Parke Naturala). *Gasterosteus aculeatus* (arrain hiruarantza), *Hyla meridionalis* (hegoaldeko zuhaitz-igela), *Hydrobates pelagicus* (ekaitz-txori txikia) eta *Phalacrocorax aristotelis* (ubarroi mottoduna) fauna-espezieak dira, eta haien banaketa-eremua kaltetuko luke, baina bisoi europarrarena baino neurri txikiagoan.
- *Zostera noltii* (zostera) eremu babestu guztietan eragin handiena jasango lukeen flora-espezia da, eremu babestu autonomikoetan izan ezik (Biotopo Babestua eta Parke Naturala). Zostera ez ezik, beste espezie asko ere badaude, eta horiek eraginda ikusiko lukete banaketa-eremua, baina neurri txikiagoan.
- Batasunaren intereseko habitatak: 1170 motako habitata (arrezifeak), 1130 motako habitata (estuariaok) eta 1410 motako habitata (larre gazi mediterraneoak, *Juncetalia maritima*) dira banaketa-azaleran eragin handiena jasango luketenak aztertutako espazio guztietan. Neurri txikiagoan, 1420 motako habitata ere kaltetuko litzateke (sasi halofilo mediterraneoak eta termoatlantikoak (*Sarcocornetea fruticosi*)). Banaketa-eremuaren eragina jasango luketen beste habitat asko daude, baina neurri txikiagoan.

- EUNIS X01 habitata (estuadioak), A2.636 habitata (paduretako ihitokiak, *Juncus maritimus*) eta B habitata (kostaldeko habitatak) dira Natura 2000 Sareko espazioetan, biosferaren erreserbetan, RAMSAR espazioetan eta trantsizioko ur-masetan banaketa-azalera eragin handiena jasango luketenak; EUNIS B3.23 habitata (landaretzarik gabeko itsaslabarrak eta kostaldeko harriak) eta A1.211 habitata (*Pelvetia canaliculata* eta zirripedoak itsasertz harritsuak, neurri handi batean esposizioan), araudi autonomikotik eratorritako naturagune babestuetan (San Juan de Gaztelugatxeko biotopo babestuan). **Bestalde, kostaldeko ur-masetan, habitat hauek jasango lukete eragina: EUNIS A1.11 habitata (muskuilu- eta/edo balano-komunitateak), A3.13 (olatuen eraginpean dauden alga infralitoralaren komunitate pontikoak eta mediterraneoak) eta A3.15 (alga hostozabalen komunitateak)**

Azkenik, atxikitako lurretan, Euskadiren eskumeneko hamabost portu-instalazioak dauden lurretan, babes- eta akomodazio-neurriak 2050erako lehentasunezko ekintzak izango direla adierazten dute emaitzek. Kalteen aurretiazko informazioak eta 2050erako aurreikuspenek ez dute justifikatzen, momentuz, atzera egiteko neurriak planteatzea.

Egindako lanak adierazten du, itsasoa 2050ean igotzeko erronkei aurre egiteko, portuko zabalguneeetan kota igotzea, arrisku-eremuetako eraikinak babestea eta babes-obren egonkortasuna ebaluatzea neurri eraginkorrak izango direla. Ozeanoaren eta meteorologiaren monitorizazioak, ekitaldien zaintzak eta kalteen inbentarioak arriskuaren ebaluazioa epe luzeagoan hobetzea ahalbidetuko dute (2100 horizontea).

Atxikitako eremuen inguruko hiriguneetan, batez ere Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko portuetan, gaur egungo arrisku-mailak eta 2050erako aurreikusitakoak ez dute igoera handirik erakusten, ez behintzat aintzat hartutako itsasoaren batez besteko mailaren +26 cm-ko igoerarekin. Aurreikuspenen arabera, 2100erako inpaktua askoz handiagoa izango da portuko instalazioak dituzten estuadioren barnealdeko hainbat herritan, Gipuzkoan (Zumaia eta Orio, bereziki) Bizkaian baino (Ondarroa eta Plentzia, portu-eremuak dituztenak, eta Erandio, berriz, ez).

Epe luzeagora, 2100era, helburu nagusia izan behar da kostaldeko kalteberatasuna ez handitzea urpean gera daitezkeen eremuetako elementu berriekin, eta dauden elementuetako arrisku-mailaren bilakaera zaintzea, elementu espezifikoak babesteko edo kentzeko neurriak aurreikusteko.

## BIBLIOGRAFIA

- Ahrens J.P. (1981). Irregular wave runup on smooth slopes, Q CETA No. 81-17, U.S. Army Corps of Engineers, Coastal Engineering Research Center, Ft. Belvoir, VA.
- Camus P., Mendez F.J., Medina R., Tomas A., Izaguirre C. (2013). High resolution downscaled ocean waves (DOW) reanalysis in coastal areas. *Coastal Engineering*, Vol. 72, pp 56-68.
- Camus P., Losada I., Izaguirre C., Espejo A., Menéndez M., Pérez J. (2017). Statistical wave climate projections for coastal impact assessments. *Earth's Future*, 5(9): p.918-933.
- Camus P., Tomás A., Díaz-Hernández G., Rodríguez B., Izaguirre C., Losada I. (2019). Probabilistic assessment of port operation downtimes under climate change. *Coastal Engineering*. 147: p. 12-24.
- Cardona O. (2004). The need for rethinking the concepts of vulnerability y risk from a holistic perspective: A necessary review, criticism for effective risk management. *Mapping vulnerability. Disasters, development and people*.
- Cid A., Castanedo S., Abascal A. J., Menéndez M., Medina R. (2014). A high resolution hindcast of the meteorological sea level component for Southern Europe: the GOS dataset. *Climate Dynamics*. doi:10.1007/s00382-013-2041-0.
- de Santiago I., Camus P., González M., Liria P., Epelde I., Chust G., del Campo A., Uriarte A. (2021). Impact of climate change on beach erosion in the Basque Coast (NE Spain). *Coastal Engineering* 167, 103916.
- EUSTAT. (2018). Informe metodológico. Escenarios demográficos para la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Territorios Históricos 2016 – 2061. 53 pp.
- Galparsoro I., Rodríguez G., Borja Á., Muxika I. (2009). Elaboración de mapas de hábitats y caracterización de fondos marinos de la plataforma continental vasca. Informe inédito elaborado por AZTI-Tecnalia para el Dirección de Biodiversidad; Viceconsejería de Medio Ambiente; Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, 74 pp.
- Hanson H., Kraus N.C. (1989) GENESIS: Generalized model for simulating shoreline change. Report 1. Technical Reference. COASTAL ENGINEERING RESEARCH CENTER VICKSBURG MS.
- Hinkel J., Nicholls R.J., Tol R.S.J., Wang Z.B., Hamilton J.M., Boot G., Vafeidis A.T., McFadden L., Ganopolski A., Klein R.J.T. (2013). A global analysis of erosion of sandy beaches y sea-level rise: an application of DIVA. *Global y Planetary Change* 111:150–158.
- IPCC (2014a). *Climate Change 2014: Impacts, adaptation and vulnerability. Part A: Global y Sectoral Aspects*. Contribution of Working Group II to the Fifth Assessment Report of the Intergovernmental Panel on Climate Change [Field, C.B., V.R. Barros, D.J. Dokken, K.J. Mach, M.D. Mastrandrea, T.E.

Bilir, M. Chatterjee, K.L. Ebi, Y.O. Estrada, R.C. Genova, B. Girma, E.S. Kissel, A.N. Levy, S. MacCracken, P.R. Mastrandrea, y L.L. White (eds.)). Cambridge University Press. 1132 pp.

IPCC (2014b). Cambio climático 2014: Impactos, adaptación y vulnerabilidad. Resúmenes, preguntas frecuentes y recuadros multicapítulos. Contribución del Grupo de trabajo II al Quinto Informe de Evaluación del Grupo Intergubernamental de Expertos sobre el Cambio Climático [Field, C.B., V.R. Barros, D.J. Dokken, K.J. Mach, M.D. Mastrandrea, T.E. Bilir, M. Chatterjee, K.L. Ebi, Y.O. Estrada, R.C. Genova, B. Girma, E.S. Kissel, A.N. Levy, S. MacCracken, P.R. Mastrandrea y L.L. White (eds.)]. Organización Meteorológica Mundial, Ginebra (Suiza), 200 págs.

Kraus N.C., Hanson H., Blomgren S.H. (1995). Modern functional design of groin systems. *Coastal Engineering*. p. 1327-1342.

Perini L., Calabrese L., Salerno G., Ciavola P., Armaroli C. (2016). Evaluation of coastal vulnerability to flooding comparison of two different methodologies adopted by the Emilia-Romagna region (Italy). *Natural Hazards and Earth System Sciences* 16, 181–194. <http://dx.doi.org/10.5194/nhess-16-181-2016>.

Slangen A., Carson M., Katsman C., Van de Wal R., Köhl A., Vermeersen L., Stammer D. (2014). Projecting twenty-first century regional sea-level changes. *Climatic Change* 124(1-2) 317-332.

Stockdon H. F., Holman R. A., Howd P. A., Sallenger Jr, A. H. (2006). Empirical parameterization of setup, swash, y runup. *Coastal Engineering* 53(7) 573-588.

Toimil A., Díaz-Simal P., Losada I.J., Camus P. (2018). Estimating the risk of loss of beach recreation value under climate change. *Tourism Management* 68, 387–400.

URA (2016). Plan de gestión del riesgo de inundación 2015-2021. Parte Española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental 220 pp + Anexos.

Webster T.L., Forbes D.L., MacKinnon E., Roberts D. (2006). Flood-risk mapping for storm-surge events y sea-level rise using lidar for southeast New Brunswick. *Canadian Journal of Remote Sensing*, 32, 194-211.

García de Bikuña B., Docampo L. (1990). Limnología de los ríos de Vizcaya. Teorías, aplicaciones e implicaciones biológicas. Dpto. Urbanismo, Vivienda. Gobierno Vasco.

González M., Uriarte A., Fontán A., Mader J., Gyssels P. (2004). Marine dynamics. A. Borja, M. Collins (Eds.), *Oceanography y Marine Environment of the Basque Country*, Elsevier Oceanography Series 70, Elsevier, Amsterdam, pp. 133-157.

López F. (1986). Hidrología torrencial en el País Vasco. Colección Itxaso, 4. Departamento de Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, Vitoria, 124 pp.

Valencia V., Borja A., Franco J., Galparsoro I., Tello E. (2004). Medio físico y dinámica de los estuarios de la costa vasca. Aplicaciones en ecología y gestión.

Agudo (2013). Estudio de la evolución morfológica de los canales mareales de la ría de la Rabia tras las obras de recuperación y restauración ambiental. Tesis doctoral, Universidad de Cantabria.

# ERANSKINAK

## U HOLDE TAULAK

### ERAGINA JASAN DEZAKETEN AZALERAREN HEKTAREAK

UDALERRIAK	KLIMA-AGERTOKIAK									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
AIA	23,55	24,35	28,32	29,28	32,14	34,22	32,8	34,7	36,66	37,29
AJANGIZ	0,3	0,3	0,32	0,32	0,34	0,36	0,34	0,36	0,41	0,42
AMOROTO	0,21	0,21	0,22	0,23	0,24	0,25	0,24	0,26	0,28	0,28
ARRATZU	0,58	0,73	1,88	2,58	4,84	6,86	5,3	7,37	9,56	9,97
ASTIGARRAGA	3,02	3,06	3,3	3,36	3,67	4,08	3,74	4,19	4,65	4,77
BAKIO	15,07	15,58	15,66	16,21	19,39	22,3	20,29	23,18	26,22	27,32
BARAKALDO	15,5	16,13	21,15	22,14	27,34	33,15	28,82	35	42,61	44,32
BARRIKA	16,47	16,7	18,37	18,64	19,64	20,51	19,91	20,78	21,85	22,08
BERMEO	21,22	21,99	22,14	22,9	23,15	23,85	23,88	25,97	28,28	29,12
BERRIATUA	7,08	7,22	7,54	7,69	7,97	8,77	8,11	8,98	9,55	9,72
BILBAO	20,29	21,71	43,14	46,07	59,4	71,3	62,43	73,92	89,37	91,58
BUSTURIA	89,58	90,33	93,56	94,32	100,53	104,21	101,59	105,14	109,45	110,34
DEBA	22,67	23,72	26,28	27,18	30,22	32,43	31,1	33,22	38,42	39,11
DONOSTIA	46,26	48,01	55,97	57,84	68,49	73,82	71,18	80,14	87,39	94,22
EA	14,63	15,58	15,17	16,13	15,71	16,12	16,69	17,1	16,78	17,79
ELANTXOBE	4,42	4,57	4,54	4,67	4,64	4,7	4,75	4,81	4,8	4,9
ERANDIO	29,52	31,72	43,93	46,64	59,38	73,61	62,67	76,69	91,2	93,49
ERRENTERIA	2,99	3,03	3,25	3,22	3,89	6,62	4,3	7,23	9,92	10,28
FORUA	61,15	67,57	72,18	72,78	75,97	78,07	76,47	78,48	81,8	82,14
GATIKA	4,94	5,04	5,41	5,52	5,88	6,19	5,97	6,26	6,82	6,93
GAUTEGIZ-ARTEAG	194,5	195,22	199,39	200,18	203,81	206,07	204,47	206,87	209,76	210,21
GERNIKA-LUMO	5,45	5,91	8,24	8,88	12,59	15,36	13,22	15,93	27,6	28,92
GETARIA	20,03	20,63	20,5	20,99	20,92	21,18	21,3	21,52	21,55	21,87
GETXO	19,01	19,36	20,54	20,86	22,34	24,4	22,79	46,73	53,17	54,48
GORLIZ	18,6	18,8	19,52	19,69	20,34	20,88	20,5	21,04	21,72	21,86
HERNANI	1,85	1,91	2,15	2,2	2,41	4,02	2,46	4,14	4,7	4,81
HONDARRIBIA	147,49	151,81	167,35	171,4	181,95	190,2	184,67	192,94	209,48	212,59
IBARRANGELU	18,04	18,34	19,03	19,32	20,18	20,94	20,48	21,19	21,87	22,1
IRUN	66,91	68,41	93,06	94,64	104,51	111,75	106,36	113,33	120,67	123,61
ISPASTER	8,6	8,93	8,89	9,21	9,19	9,44	9,53	9,77	9,86	10,21
KORTEZUBI	65,14	66,68	70,99	71,64	73,78	76,48	75	76,9	79,78	80,24
LEIOA	4,52	4,62	5,16	5,48	7,55	18,65	7,86	24,97	38,37	41,39
LEKEITIO	6,93	7,04	7,36	7,46	7,8	8,42	7,97	8,58	9,04	9,14
LEMOIZ	16,08	16,28	16,73	16,94	17,39	17,88	17,61	18,04	18,53	18,67
LEZO	0,12	0,12	0,14	0,18	0,22	1,8	0,29	3,6	8,55	9,01
LOIU	0,21	0,22	0,26	0,27	0,3	0,33	0,31	0,34	0,52	0,53
MENDARO	0,68	0,69	0,8	0,83	1,28	1,44	1,33	1,48	1,74	1,79
MENDEXA	22,06	22,52	22,99	23,49	23,87	24,47	24,32	24,92	25,43	25,83
MUNDAKA	8,07	8,19	8,34	8,46	8,6	8,8	8,72	9,91	10,92	11,16
MURUETA	122,92	139,29	142,57	143,07	145,79	148,42	146,15	148,74	150,3	150,52
MUSKIZ	41,02	41,63	43,89	44,85	47,31	49,71	48,04	50,52	55,93	56,93
MUTRIKU	24,17	24,92	25,66	26,22	27,05	28,41	27,54	28,94	30,63	31,11
ONDARROA	18,2	18,82	22,67	23,48	26,07	27,66	26,52	28,06	29,95	30,35
ORIO	50,06	50,59	60,19	61,38	65,46	69,3	66,42	70,22	75,45	76,35
PASAIA	10,03	10,51	11,03	11,52	12,28	16,54	12,96	22,66	38,4	41,38
PLENTZIA	35,01	35,73	38,67	39,23	42,66	47,02	43,65	47,8	51,28	51,79
PORTUGALETE	1,02	1,04	1,13	1,15	1,26	1,63	1,3	1,84	2,5	2,72
SANTURTZI	2,87	2,92	3,13	3,19	3,53	3,93	3,65	4	4,41	5,08
SESTAO	6,48	6,68	17,54	18,68	29,78	40,22	31,92	43,37	58,1	61,02
SONDIKA	1,6	1,62	1,71	1,73	1,83	1,99	1,87	2,04	2,41	2,51
SOPELA	8,4	8,54	9,08	9,21	9,68	10,09	9,79	10,2	10,68	10,77
SUKARRIETA	5,13	5,32	6,27	6,47	7,25	8,25	7,43	8,48	9,32	9,43
USURBIL	35,07	36,24	45,38	46,86	50,99	54,51	51,72	55,41	61,53	62,43
VALLE	1,3	1,32	10,47	11,03	12,63	15,26	12,89	17,35	38,42	41,86
ZARAUTZ	28,34	29	30,93	31,86	33,74	36,03	34,89	36,68	38,85	39,52
ZESTOA	0,36	0,38	0,44	0,46	0,56	0,64	0,58	0,66	0,73	0,74
ZIERBENA	13,58	13,75	14,45	14,6	15,25	15,92	15,4	16,08	17,03	17,29
ZUMAIA	30,1	33,78	47,15	50,62	61,52	71,22	64,66	74,05	88,07	90,54

## ERAGINA JASAN DEZAKEEN AZALERAREN EHUNEKOA

UDALERRIAK	KLIMA-AGERTOKIAK									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
AIA	0,41	0,42	0,49	0,51	0,56	0,6	0,57	0,6	0,64	0,65
AJANGIZ	0,04	0,04	0,04	0,05	0,05	0,05	0,05	0,05	0,06	0,06
AMOROTO	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02
ARRATZU	0,06	0,07	0,19	0,25	0,48	0,68	0,52	0,73	0,94	0,98
ASTIGARRAGA	0,25	0,26	0,28	0,28	0,31	0,34	0,31	0,35	0,39	0,4
BAKIO	0,92	0,95	0,95	0,99	1,18	1,36	1,24	1,41	1,6	1,66
BARAKALDO	0,61	0,64	0,84	0,88	1,08	1,32	1,14	1,39	1,69	1,76
BARRIKA	2,15	2,18	2,4	2,44	2,57	2,68	2,6	2,72	2,86	2,89
BERMEO	0,64	0,67	0,67	0,69	0,7	0,72	0,72	0,79	0,86	0,88
BERRIATUA	0,37	0,38	0,39	0,4	0,42	0,46	0,42	0,47	0,5	0,51
BILBAO	0,5	0,54	1,07	1,14	1,47	1,77	1,55	1,83	2,21	2,27
BUSTURIA	4,4	4,44	4,59	4,63	4,94	5,12	4,99	5,16	5,37	5,42
DEBA	0,45	0,47	0,52	0,54	0,6	0,65	0,62	0,66	0,77	0,78
DONOSTIA	0,76	0,79	0,92	0,95	1,12	1,21	1,17	1,32	1,43	1,55
EA	1,05	1,12	1,09	1,16	1,13	1,16	1,2	1,23	1,2	1,28
ELANTXOBE	2,47	2,55	2,54	2,61	2,59	2,63	2,65	2,69	2,68	2,74
ERANDIO	1,58	1,69	2,35	2,49	3,17	3,93	3,35	4,1	4,87	4,99
ERRETERIA	0,1	0,1	0,1	0,1	0,12	0,21	0,14	0,23	0,32	0,33
FORUA	8,08	8,93	9,54	9,62	10,04	10,32	10,11	10,37	10,81	10,86
GATIKA	0,29	0,29	0,31	0,32	0,34	0,36	0,35	0,36	0,4	0,4
GAUTEGIZ-ARTEAGA	14,34	14,39	14,7	14,76	15,02	15,19	15,07	15,25	15,46	15,5
GERNIKA-LUMO	0,64	0,69	0,96	1,04	1,47	1,79	1,54	1,86	3,22	3,38
GETARIA	1,88	1,93	1,92	1,97	1,96	1,98	2	2,02	2,02	2,05
GETXO	1,59	1,62	1,71	1,74	1,87	2,04	1,9	3,9	4,44	4,55
GORLIZ	1,88	1,9	1,98	1,99	2,06	2,11	2,08	2,13	2,2	2,21
HERNANI	0,05	0,05	0,05	0,06	0,06	0,1	0,06	0,1	0,12	0,12
HONDARRIBIA	4,96	5,1	5,62	5,76	6,11	6,39	6,21	6,48	7,04	7,14
IBARRANGELU	1,25	1,27	1,32	1,34	1,4	1,45	1,42	1,47	1,52	1,53
IRUN	1,6	1,63	2,22	2,26	2,49	2,66	2,54	2,7	2,88	2,95
ISPASTER	0,38	0,39	0,39	0,4	0,4	0,41	0,42	0,43	0,43	0,45
KORTEZUBI	5,56	5,69	6,06	6,12	6,3	6,53	6,4	6,56	6,81	6,85
LEIOA	0,54	0,55	0,62	0,66	0,91	2,24	0,94	3	4,6	4,97
LEKEITIO	3,72	3,79	3,96	4,01	4,2	4,52	4,28	4,61	4,86	4,91
LEMOIZ	0,86	0,87	0,89	0,9	0,93	0,95	0,94	0,96	0,99	0,99
LEZO	0,01	0,01	0,02	0,02	0,03	0,21	0,03	0,42	1	1,06
LOIU	0,01	0,01	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02	0,03	0,04
MENDARO	0,03	0,03	0,03	0,03	0,05	0,06	0,05	0,06	0,07	0,07
